



Sarako leizeak berriro ere zabalik daude **04**

Zortzi hilabetetako konponketa eta berrikuntza lanen ondotik, urtarrilaren 14an ireki zituzten Sarako leizeak. 400.000 euroko inbertsioa egin behar izan da.



Iñaki Lizaso Faustino Torneoko txapeldun **28**

Doneztebeko erremontistak urte bukaera eta urte berriaren hasiera borobila egin ditu: Martiko Torneoa banaka eta Faustino Torneoa binaka irabazi ditu.

2008ko urtarrilaren 31 • XXVIII. urtea
www.ttipi.net

ARANTXA SAGASTIBELTZA LEITZAKO SOMMELIERRA

03 Urrezko Sudurra irabazteko lehian



Lasao

• egurrezko altzaria

Fabrikako prezioetan zure etxera
Gaztainondo, gerezizko eta haritzeko altzariak
Gaurko diseinu eta kolore berriak, beti egurrean



Lasao Industrialdea • AZPEITIA
tel. 943 15 11 82 • informacion@lasao.com

www.lasao.com



euskara ere urratsez urrats.
te ayudamos en cada paso.



www.ikanet.net

OTSAILEKO MATRIKULAZIOA
Izena eman:

- Bortzirietako Euskaltegia • 948 637 796
- Malerrekako Euskaltegia • 948 451 555
- Leitzaldeko Euskaltegia • 948 610 776

EPEA: OTSAILAREN 15a BAINO LEHEN

DATUAK...

- Iruñeko Mutiloa jatetxean lan egiten du Arantxa Sagastibeltza leitzar gazteak. Ez da zerbitzaria ez sukaldaria ere. Bera sommelierra da.
- «Sommelierra jatetxean ardoari dedikatzen den pertsona da. Informazioa ematen die bazkaltzera etortzen direnei», azaldu digu.
- Azaroan, Espainiako Urrezko Sudurra txapelketa ezaguneko finalera sailkatzeko txartela lortu zuen Arantxak eta hala, ekainaren 22an eta 23an Madrilén lehiatu beharko du.



Arantxa SAGASTIBELTZA *Leitzako sommelierra*

ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

«Ardoak egunero probatuz ikasten da zein den ona eta zein ez den»

Goizalde URDANPILLETA

Hagitz ongi menperatzen ez dugun gaia da sommelierrena. Baina nola egiten da bat sommelierra?

Denetarik dago, baina ni ostalaritzan duela sei urte sartu nintzen eta orduan ez nekien ezta zer zen ardoa ere eta poliki-poliki hasi nintzen afizioa hartzen, probatzen, ardo bat eta bestea probatzen... eta horrela.

Badago sommelier izateko ikasketarik?

Bai badago, Bartzelonan eta Madrilén. Gero enologia egitea izango litzateke, baina hori bodegetan egoteko edo ardoa egiteko da. Gure lana jatetxeetan saltzea da eta ezberdina da. Baina eguneroko lanak gehiago erakusten du. Egunero probatu behar dira ardoak eta horrek erakusten du zein den ona eta zein ez. Bezeroak ere asko erakusten du, zein ardo mota nahi duen, zer gustatzen zaion... la egunero ardo berriak ateratzen dira, eguneroko lana da.

Zure lana bezeroari erakustez gain, jatetxeari aholkatzea ere bada, ez? Bai. Sommelier batek jatetxe batean ardoari buruz dena egiten du. Erosi, ikusi, ekarri, probatu eta hortik irudi-

«Koloreak asko esaten du, gaztea den, krianza barrika pixka bat duen, erreserba den... Ardo gaztetasunetik heldutasunera pasatzen da eta gero jaisten hasten da, okerrera egiten.»

tzen bazaio ona dela eta jatetxearentzat prezio ona daukala, orduan kartan sartzen du. Karta hiru hilabetetik behin edo aldatu behar da. Ardo batzuek beti egon behar dute, baina beste batzuk aldatu egin behar dira.

Janari eta edariek beti elkarrekin dantzan ibili behar dute...

Bai, beti. Gainera bazkari bat prestatzeko pentsatu behar da zein janari dagoen zein ardo erosi erabakitzeke, edo bestela, zer ardo nahi duen zein janari erosteko. Garrantzi handia dauka zer mahats mota erabiltzen den. Ardo bakoitzak mahats mota bat erabiltzen du eta hori garrantzitsua da.

Mundu hau kanpotik ikusten den bezain konplikatu da?

Hastea da kontua. Hasieran ematen du baietz, konplikatu dela. Usaintzen

hasten zara eta ez duzu profesionalak daukan usaimen hori eta ez duzu ardo usaintzen. Gero hasten zara, «honek fruitu gorriak dauzka, eta honek barrika usaia...» eta honela, pixkanaka. Usaimena landu behar da, horregatik eguneroko lana da.

Usaimena, dastamena... Zentzumenak fin-finak eduki behar...

Bai, bai, katarroa harrapatzen ez dugun bitartean...

Zer da sommelier batek egin beharreko lehenbiziko gauza?

Aurreneko gauza kolorea ikustea da. Koloreak asko esaten du. Koloreak esaten dizu ardo gaztea den, edo krianza barrika pixka bat daukan, edo erreserba den, erreserba handikoa... Ardo gaztetasunetik heldutasunera pasatzen da eta gero jaisten hasten da, okerrera egiten.

Ardo ona apeziazteko gai gara?

Bai. Gero eta gehiago. Badago jendea betikoa nahi duena eta hortik ateratzen ez dena, baina ardo probatzea gustatzen zaiona ere badago. Ardo asko daude, eta probatu gabe ezin da jakin. Sommelierren lana ardo saltzea da eta saltzen jakin behar da.



ARGAZKIAK: J. IRIGOIEN ETA UTZITAKOIA

Zenbait berrikuntzarekin urtarrilaren 14an zabaldu zituzten Sarako leizeak.

400.000 EURO INGURUKO GASTUA IZAN DUTE

Zortzi hilabeteren ondotik berriz ireki dituzte Sarako leizeak

Gogoan izanen ditugu denok joan den urteko maiatzeko uholde haiek zenbaterainoko kalteak eragin zituzten gure inguruan. Eta Saran ere bai. Harrezkero, itxita egon dira Sarako leizeetako ateak zortzi hilabetetan, urtarrilaren 14an berriz ireki zituzten arte. Euriteek eragindako kalteak haundiak izan ziren, eta haitzuloa itxi egin behar izan zuten. Konponketa eta berritze lanetan ibili dira zortzi hilabeteotan eta 400.000 euro xahutu dituzte osatze lanetan. Horietatik 200.000 euro herriak ordaindu behar izan ditu; 100.000 euro Akitania eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak bideratuko ditu eta gainerako 100.000ak lortzeko aseguru etxeekin negoziatzen ari dira. Baina horrez gain, itxita egon diren tarte horretan izan diren diru galerak kontuan hartu behar dira. Edozein kasutan, obrak bukatuta, leizeak berriro zabalik daude eta lehengo bisitari kopurua bereganatzeaz gain, ugaritzeko asmoarekin dira leizeetako arduradunak. 45 minutuko bisita gidatuak lau hizkuntzatan antolatu dituzte: euskaraz, frantsesez, gazteleraz eta ingelesez.

Gurutze PIKABEA

Turisten erakargarri eta herriaren diru iturri nagusi. Halaxe dira Sarako leizeak. Eskualdera etortzen diren bidaiari eta turisten gustuko lekuak dira, Joxemiel Barandiaranek arkeologia ikerketak egin zituenetik aunitz indartu direnak. Larungo trenaren ondotik leizeak dira inguruan tokirik bisitatuenak —Larungo trenak 363.000 bisitari izan zituen 2006an—. Urtetik urtera bisitari kopurua nabarmen igozten joan da leizeetan, eta datuei begiratu bertzerik ez dago hori horrela dela ikusteko. 2004an, erraterako, 100.330 bisitari hartu zituzten; 2005ean 105.474 eta 2006an 110.600 lagun. 2007a, ordea, ez zen batere ona izan. Oraindik aski gogoan izanen dute herritarrek Sara-Azkaine-Senpere aldean zenbaterainoko kalteak sortu ziren eurite haien ondorioz. Sarako leizeak itxita egon dira geroztik konpon-



François POUYET Sarako leizeetako zuzendaria

Uholdeak izan eta zortzi hilabete beranduago ireki dira leizeak. Zein lan egin dira?

Obra aunitz egin dira, kanpokaldean parke megalitikoan zein museoan lanak egin dira, eta leize barrenean ibilbide guztia berritu behar izan da, uholdeen ondorioz bideko harlauza guztiak mugitu baitziren. Argiztapen sistema ere eraberritu behar izan da, eta lau kilometroko luzera zuten kableak berriz paratu. Berrikuntzei dago-kenez, neurriak hartu ditugu museo eta leizeak babesteko, eta bisitari dago-kionean, zati berri bat zabalduko da.

Nola oroitzen duzu iazko maiatzaren 4a?

Egun gogorra izan zen, leizeetara joan eta sarrera uretan zegoela ikusi nuenean, egoera larria zela jabetu nintzen. Haren eraginez zortzi hilabetetan lanik ezin eginez egon gara leizeetako langile guztiak. Urtean 110.000 bisitari baino gehiago izaten ditugu eta alde horretatik, Herriko Etxearentzat ere gainera haundia izan da, urtean 250.000 euroko diru sarrera baita herriarentzat.

Gastua zenbatekoa izan da?

Azkeneko gastua zenbatekoa izan den ez dakit, baina 400.000 euroren bueltan

ibiliko da. Herriko Etxeak 200.000 euro ordainduko ditu, Akitaniako eta Pirinioetako Kontseilu Nagusiak bertze 100.000 emanen dituzte eta gainerakoa lortzeko aseguru etxeekin negoziatzen ari gara.

Nola antolatu duzue bisita?

Lau hizkuntzatan prestatu dugu, euskaraz, frantsesez, gaztelerez eta ingelesez. Leize barrenean 45 minutuko ibilbidea egin daiteke eta aitzinetik ikusentzunezko bat ikusteko aukera dago, hemengo geologiari buruzkoa. Sarako leizeetako geologia atipikoa da, ez hagitz ohikoa. Museoa eta parke megalitiko ere hor daude ikusgai. Hala, Euskal Herriaren jatorria eta mitologia ezagutu daiteke, Joxemiel Barandiaranen lanetan oinarrituta.

«Leizeetako sarrera uretan zegoela ikustean, egoera larriaz jabetu nintzen»

keta lanak egiteko, eta urte berriarekin batera, lehengo martxari ekin nahi diote. Herriarentzako diru iturri haundia ere badira leizeak: urteko 250.000 euroko irabaziak izaten baititu herriak.

ORDUTEGIA ETA PREZIOAK

45 minutu ingurutan ikusteko 900 metroko ibilbidea prestatu dute leizeetan barrena eta langileak ere prest dira lanean hasteko. Argi dago negu partean baino aunitzez ere bisita gehiago jasotzen dutela udan, horregatik hainberzerako aldea langile kopuruan; orain François Pouyet leizeetako zuzendariarekin batera bertze hiru lagun ari dira; udan guztira 30 langile arituko dira, 15 haitzuloetan eta bertze 15 ostatuan. Bisitak lau hizkuntzatan prestatu dituzte: euskaraz, frantsesez, gaztelerez eta ingelesez. Leize barruaz gain, parke megalitiko eta museoa ere hantxe daude.

Neguko ordutegia

Astegunetan: 14:00- 17:00
Asteburuetan: 13:00-17:00

Udako ordutegia

10:00etatik 18:00etara

Prezioak

Helduak: 6 euro
6-13 urte: 3,5 euro
0-6 urte: dohainik

HAINBAT BERRIKUNTZA

Argi sistema berria paratu dute

Zortzi hilabetetako lanak xamurrak izan direnik ez pentsa. Ez horixe. Euriteek ageriko hondamenak utzi zituzten leizeetan eta bere inguruan, eta lekuak hala behartuta —makineria haundiegirik ezin delako barrenean erabili— lanak aunitz luzatu dira. Barrenera sartutako hondakin guztiak eskuz atera dituzte eta lanak Herriko Etxeko langileek egin dituzte. Halere, herritarren laguntza haundia izan da eta herriko merkatariek ere euren laguntza eman dute. Kable andana hondatu zen —4 kilometro kable—, argiztapen sistemak ere kalte nabariak jasan zituen eta harlauzak edo losak denak hankaz goiti utzi zituen urak. Hartara, kable guztiak berriz paratu dituzte, baita sarrerako panel elektrikoak ere, eta bisita gidatuak egiteko ikusentzunezko material aunitz eraberritu da.

Euriak hondamendia ekarri zuen Sarako leizeetara, eta naturaren bidea kontrolaezina bada ere, halako katastrofeak berriz ez gertatzeko neurriak hartu nahi dituzte arduradunek. Bertzeak bertze, uraren eragina murrizte aldera, leizeen inguruan zuhaitzak landatzeko asmoa dute, eta mendiko pistetan autoen erabilera arautu du Herriko Etxeak.



Itxita egon den hilabete horiek zenbait berrikuntza egiteko ere baliatu dituzte. Leku berriak agerian utzi dituzte eta gainera, argiztapen sistema berria ezarri dute, kontsumo baxuko bonbilak paratuz.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemakileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Mattin Sarasola eta Igor Porturen atxiloketen inguruan

Pasa den igandean bi lagun eraman zituzten herritik. Bi gazte aktibo, langile, herri osan ezagunak eta beti ere laguntzeko prest zeudenak.

Holakoetan ohituta gaude atxilotu eta bortz egun luzeren ondotik berri txarrak jasotzera, baina, oraingoan egun bat aski izan zen bat ospitalean zegoela jakiteko.

Giza eskubideen arabera inor ezin da ez torturatua ez lotsarazia izan, ordea, denak baliotu demokraziaren ize-nean.

Non gelditzen da pelikuletako «*tiene derecho a permanecer en silencio...*»? Gure gazteak bizitzen dutena ez da hori. Bide guztiak erabiltzen dituzte eurek nahi dituzten bertsioak aditzeko. Haien eta haien lagunaren kontrakoak erratera behartzen dituzte, torturatuz eta lotsaraziz.

Bi gazte hauek jasanakoa lehendik ere euskal herritar aunitzek jasan izan dute. Bada-kigu hauek ez dira lehenak izan ezta azkenak izango ere. Baina

jakin dezatela honen aurrean gu ez garela geldirik geldituko.

Errepresioaren gaitetik gure herria eraiki-kogu dugu! Eutsi euskal gazteria!!

Lesakako Gazte Asanblada

Igor eta Mattinen atxiloketen harira

Duela urte dexente ezagutu nuen Igor Portu, Lekarozko institutuan. Lau urtez elkarrekin ikasi genuen eta ederki demostratu zuen pertsona bikaina zela, bihotz onekoa guztiz. Oraindik bere irrifarra burutan dut, bere izateko modua bihotzean. Duela hilabete batzuk egon ginen elkarrekin, Elizondon, gau batez, bestan, eta denbora aunitzez elkar ikusi gabekoa baginen ere, denbora pasatu izan ez balitz bezala hitz egin genuen, betiko laguntasun berarekin.

Badago laguntasun mota bat askotan ematen dena, eta zenbaitentzat atipikoa izan arren benetan purua eta garbia dena, konpromisoetan oinarritu gabe. Aunitzetan lagun direla uste dugunak ez dira be-

netako lagun, eta alde-rantziz, guttitan ikusten ditugunak, inorbaino lagunago izan daitezke, benetan merezi duten horietakoak; eta halako zerbait da nik Igorren-gatik sentitzen dudana.

Azken egunotako gertaerak samintasun handiz jaso ditut, eta orain bere irrifarra irudikatzea kosta egiten zait, gehiago egunetik egunera, pasa dituen une latzak kontuan hartuz. Bere testigantzek amorrutza bete dute nere bihotza, kostata irakurri ditut, malko artean, eta gelditu zaizkidan indar guztiak berari pasatu nahi izan dizkiot, baina ezin. Oihu eta negar egin dut beregatik, baina dena guttiegi izan da, alferrik, zoritxarrez bihotzik gabekoen eskutan egon baita bera bitartean, eta hauek, beste nonbait egon beharko luketen hauek, bere bizia eta ondokoena izorrratu dutelako bertze behin.

Zer da hau?? Noiz arte jarraituko dugu halako gauza LARRIAK onartzen?? Non ditugu begiak?? Noiz irekiko ditugu, eta zer beharko dugu horretarako??

Gaur hemendik oihu egiten dut berriz, oihu denen artean zerbait egin dezagun halako TORTURAK errepikatu ez daitezen, oihu tortu-

ratzaileen kontra, oihu Igorri, Mattini eta hauek bezala dauden aunitzi animoak emateko, oihu bere familia eta lagunei indarra emateko... Ojala nere oihuen oartzuna urruti iristea, ojala laster Igorrekin egoteko aukera izatea, eta ojala amesgaizto hau laster bukatzea.

Igor Porturen ikaskide ohiak

Goizuetan

gaztetxea

orain eta beti

Idatzi honekin jakinarazi nahi dizuegu Goizuetako gaztetxearen egoera zein den momentu honetan. Gaztetxeak hilero herriari bizia ematen dioten ekin-tzak antolatzen ditu. Horretarako gazteok gaztetxe bat edukitzea da normalena eta oraingoz badugu baina galtzeko zorian gaude, lehengo Udalak gaztetxea dagoen lekuan joango litzatekeen proiektu bat egin baitzuen. Bertan kultur-etxe bat eraikitzea da asmoa. Hori egiten bada gazteok momentuan daukagun gaztetxe gabe geratuko gara, hau dagoen lekuan eraikiko

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

• 11 GALDERA LABUR •

baita kultur-etxea. Eta hori ez zuen kontuan hartu lehengo Udalak. Gu, gazteok, kontutan hartu gabe egin zuten proiektua, guri ez zizkiguten beraien asmoak azaldu. Lehengo korporazioarekin hitz egin genuen eta ttipi-ttapan proiektuaren berri eman zutela esan ziguten. Informatu nahi zenuenak informatzeko aukera izan zuela esan ziguten; baina guk joan behar al genuen beraiei egindakoaren azalpena eskatzera? Ez al litzateke zuzenagoa kaltetuak gu izanik beraiek etortzea gurengana azalpena ematera? Edo ez dute beharrezkoa ikusten herritarrek beraiek erabakitzea herrian zer nahi duten?

Ikusten duzuen moduan gaztetxea galtzekotan gaudenez oraingo Udalarekin hainbat bilerak egiten ari gara konponbide bat bilatzeko asmoz. NAHIZ ETA GUK GAZTETXEAN GELDI-

TU NAHI, EZ BAITZAI-GU ONDO IRUDITZEN GU GAZTETXEAREKIN GELDITZEAGATIK HERRIARI KULTUR-ETXE BAT EDUKITZEKO AUKERA KENTZEA. Horregatik orain dagoen Udalak proiektu hori eraikitzeo aukera onartzen bado, beste lekuren batera joateko aukera eskaini digu.

Azken finean gazteok elkarrekin biltzeko gune bat izatea eta gure lanak aurrera eramateko behar bezalako baldintzak edukitzea beharrezkoa iruditzen baitzaigu. Beraz, argi dago Goizuetako gazteok gaztetxe baten beharra dugula. Gaztetxe baten aldeko borrokan jarraituko dugu!

Goizuetako Gazte Asanbalda

Bortzirietako Haur eta Gazte Ipuin lehiaketan lehenbiziko saria, Gai-xotasun sendaezina lanarekin. Labor-labur, zer kontaktan duzu?

Xato izenekoa mutil bat da protagonista. Ama medikuntza irakaslea da eta aita mediku talde bateko burua, bihotza ikertzen aritzen dena. Xatori bihotzeko gaixotasun arraro bat harrapatzen diote. Ezin zuten sendatu medikuntzak ez zuelako gaitasunik. Hortaz, makina batean sartzen dute, eta denbora gelditu. Hartara, hemendik 20 urtera medikuntza garatuagoa dagoenean sendateko.

Trikitixarekin ahizpa eta biek ere ederki moldatzen zarete. Sari aunitz jaso dituzue...

Seina txapel baditugu dagoeneko.

Trikitixa jotzen edo idazten, zertan moldatzen zara hobeakien?

Trikitixa jotzen.

Idatzi, trikitixa... Baduzu bertze afiziorik?

Organoa ere jotzen dugu eta elizan jotzen hasi gara. Eta gero, frantsesa, ingelesa eta solfeo ematen dugu.

Trikitixa jotzeko, bertso afaria edo txapelketa?

Bertso afarian la-

saiago, eta txapelketan nerbiosago. Ikasketetan zer moduz zabilta?

Ongi, *bikain* eta *oso ongiak* atera ditut.

Etorkizunera begira zein asmo dituzu?

Ez dakit oraindik. Musikarekin behin behin segituko dut.

Miresten duzun norbait baduzu?

Konkretuki errateko ez.

Olentzeroak eta Erregeak ongi portatu ziren?

Bai. Katuentzako pentsua ekarri digu, argazki makina bat, arropa...

Inauteriak ere heldu dira...

Desfilean lehengo urtetan pintxoaren karrozarekin jotzen dugu.

Zer du Etxalarrrek bertze herriek ez duenik?

Ez dakit... Nirea dela!



Iruñe ELIZAGOIEN
Etxalarko gaztea

BERA Zere inguruak klase guzietako insektuz (samarra, zintorra, orniarra, kukuxu...) eta errotoi zurgutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

BOBKO

AGRIKULTURAZARREKIKI

Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 806

Haur Jaiaberrientzako osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 • 31780 Bera • Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUÑ

ZJ
Zalain
jatekua - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa 1/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

TURISMOA

Kalitatearen Q ziurtagiria berritu diote Bertizko Natur Parkeari

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak 13 turismo eskualdetan banatu du Nafarroa

ttipi-ttapa

Bertizko Natur Parkeak, Turismo Kalitatearen Q ziurtagiria berritu du, egin berri zaizkion auditoriak arrakastaz gainditu ondotik. Nafarroan, babestutako natur eremu bisitatuenetakoa da Bertiz eta ziurtagiri honekin, bisitariendako ekipamendu eta zerbitzuen kalitate bermea baieztatu eta etengabeko hobekuntza prozesuan segitzen duela nabarmendu nahi izan dute.

Espainiako Turismo Kalitate Institutuak 2005eko azaroan eman zion Q ziurtagiria Bertizko Parkeari lehenbizikoz. Estatu osoan bederatzi dira ziurtagiri hori duten natur eremuak, eta horietatik bi, Bertizko Parkea eta Irunberriko Arroila, Nafarroan daude. Bertizetik jakinarazi dutenez, kalitatearen Q ziurtagiria lortzeko araudia oso-osorik bete dute Natur Parkean. Q markak, bere aldetik, bisitarien satis-



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Bertizko Natur Parkeak 2005eko azaroan jaso zuen Q kalitate ziurtagiria.

fazioa lortzeko konpromisoa adierazten du.

Nafarroako Diputazioak 1984ko martxoaren 25ean izendatu zuen Bertizko Natur Parkea, guztira 2.040 hektarea dituen eremua. Lorategia 1847an diseinatu zuen Felix Lambert frantziarrak, baina Pedro Ziga berak egin zuen. 3,4 hektarea dituen lorate-

giak, mundu osoko zuhaitz eta zuhaixkak ditu, 130 espezie ezberdinetakoak.

13 TURISMO ESKUALDETAN BANATU DUTE NAFARROA

Nafarroako turismoa bultzatzeko helburuarekin, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak

neurri berria hartu du. Hala, 13 eskualdetan banatu du Nafarroako turismo eskaintza. Eskualde bakoitzak garpenerako proposamen nagusia izanen du eta gai bat hartuko du ardatz nagusitzat, horren inguruan turismo produktu eskaintza garatu eta eskualdea indartu ahal izateko.

Ttipi-ttapa aldizkariak hartzen duen eskualdeari dagokionez, bi eskualdetan banatuko da turismoari begira. Alde batetik, Bertiz egonda, eta *bailara lasaiak* lemapean, lasaitasuna izanen du ardatz nagusia. Hortik abiatuta, kultur eta natur turismoa bultzatuko da. Bertizko produktu nagusiak Bertizko Natur Parkea, Bertizko Interpretazio Zentrua, Bidasoako trenbidea, Elizondo eta Santxotena Museo Etnografikoa izendatu dituzte eta Baroja izanen da pertsonaia ezaguna.

Plazaola eta Sakanari dagokionez, lema *Paseo bat ametsetan barna* izanen da eta ildo nagusiak Aralar eta Urbasa-Andia mendi-lerroak izanen dira. Natur turismoa bultzatuko da hemen ere eta turismo produktuei dagokionez, Urbasa, Andia, Iribas, Orgi, Mendukilo lezea eta Aralarko San Migel indartuko dira, bertzeak bertze.

BERA

Herriaren izen ofiziala errespetatzeko eskatu du Udalak

Ofizialki Bera da, eta ez Vera de Bidasoa

Amaia eta Ainhoa

Bera, eta ez Vera de Bidasoa. Udalak azken batzarrean herriaren izena ofizialki eta leku guztietan Bera dela, eta ez Vera de Bidasoa, garbi gelditzea eta hori lortzeko tramiteak hastea erabaki zuen. EAko zinegotziak ez ezik, gainerako bederatiak Euskara Batzordeak egindako proposamenaren alde azaldu ziren. Udalak tramite hauek lehendik ere eginak ditu baina inoiz ez dute behin betirako moldatzea lortu. 1979an Euskaltzaindiak garbi utzi zuen historikoki Bera dela herriaren izena eta ez Vera de Bidasoa. Nafarroako Gobernua jakinarazi zion eta orain bide bera segituko du Udalak. Beraz, herriaren izendapena aldatzeko eta ofizialki Bera izateko tramiteak hasiko dira.

Kaldereroak azkenean bai

Joan zen urtarrilaren 16an kaldereroen gaineko gogoetarako bileta egin zen Kultur Etxean. Parte-hartzea hagitz handia izan ez bazen ere, bertan ateratako gogoeta eta lanerako gogoari esker, otsailaren

2an azkenean eginen da kaldereroen besta. Bertaraturakoek antolaketak batzorde bat eratzearabaki zuten, eta kultur teknikari eta zinegotziaren koordinaziopean ariko dira aurtengo bestaren antolaketan. Bi urterako egitasmoa prestatu da. Aurtun, aldaketa ttiki batzuk sartuko dira, denbora faltagatik aldaketa sakonagorik ezin izanen baita egin. Baina heldu den urterako jende gehiago inplikatu nahi dute.

Orain urte batzuk ibilbide aldaketa egin bazen ere, lehenagoko ibilbidea berreskuratu nahi dute antolatzaileek: 19:00etan Illekuetatik atera, Altzate karrika gurutzatu, Eztegaratik jarraitu eta zahar etxera joanen dira. Hemendik Legia karrikan barna Herriko Etxeraino iritsiko dira San Esteban karrikan barna. Bertze berrikuntzetako bat azkeneko urteetan galdutako gurdiarena izan da. Lehen haurrak eramateko hiru gurdi ateratzen ziren eta azken urteetan ohitura hori galdua zen. Lan horretan ibili dira baina denbora gutti dagoenez, gurdi ba-



ARGAZKIA: ROSA ERRANDONEA

Zubi, Loro eta Xabi gogoan

Orain dela urtebete Taillon mendian zendutako Xabier Zubietak *Zubi*, Luis Mari Pikabeak *Loro* eta Xabier Saralegi gogoan omenaldia egin zuten Santa Barbarako kaxkoan urtarrilaren 12an. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, senitarteko, lagun eta herritar andana hurbildu zen, eta loreak, bertsoak eta aureskua eskaini zizkieten. Lehendik jarritako oroitarriari plaka paratu zion Agerra Mendi Taldeak eta arratsaldean Bikotekako Mendi lasterketa kronometraturia egin zen, nahiz eta ez puntuagarria izan.

karra aterako da aurtun. Heldu den urterako aldaketa gehiago egiteko asmoa dago, hori bai, jende gehiagoren laguntzarekin. Hala nola, besta egunez aldatzea. Kaldereroak, normalki, inauterien aurreko asteburuan egiten dira. Arrazoi ezberdinak tarteko, ordea, azken urteetan inauterietako larunbatean ospatu ohi dira eta hori aldatu nahi da. Horrez gain, Hartzairen pertsoanaia eta plazan egiten zen dantza ere berreskuratu nahi dira.

Aurtengoari dago-kionean, lagundu nahi duenak Kultur Etxera joan edo 948 631222 telefonora deitu dezake. Rnsaioak hilaren 29an eta 30ean eginen dira, 19:30ean Kultur Etxean.

Maria Irigoieni omenaldia

Bera eta Irungo Arkupeak jubilatuen elkarteak otsailaren 3an eginen den besta, Maria Irigoien Azkona omenduko du, urtetan elkarteko ordezkarietako bat izandakoa. Eguerdian zendutakoen aldeko meza entzun ondoren, Zalain jatetxean bazkaria eginen dute eta gero dantzaldia.

Argazki lehiaketa

www.berakoudala.net webguneak inauterietako argazki lehiaketa martxan jarri du. Edozeinek parte har dezake eta nahi hainbertze argazki bidali. Aurtengo inauterietakoak izan beharko dute eta otsailaren 8a baino lehen aurkeztu behar dira. Sari-

tuak MP4 bat jasoko du eta parte hartzaileen artean liburu eta disko sorta bat zozketatuko dira.

Mus txapelketa

Gure Txokoa Elkarrekin antolatuta mus txapelketa azkarra jokatuko da otsailaren 2an lastotenean. 16:00etan hasita, bazkide izan ala ez, nahi dutenek parte hartu ahal izanen dute. Izen ematea egun berean 15:00etatik aitzinera egin beharko da, eta 12 euro ordaindu. Antolakuntzak sari ederrak iragarri ditu.

Toki Onako saskiak

Etxalarko Oiarburua baserriari laguntzeko zozketatutako saskietan, oraindik bi lote ez dira ateratu: 2.315 eta 2.023 zenbakiak. Epea otsailaren 8an bukatuko da.

ERREKALDE
PLATER KONKURTAK
DANTZAK
BOKATZAK
Ongi pasa bestaki!
TFNOA: 948 630 259 BERA

carohe
geologia okidologia
C/ de Estegüera 25 baxo
30700 BERRI (NAVARA)
948 63 08 99
www.carohe.net

XIRILLI
Albata 1. BERA
Telefono 948 631 402

LESAKA

Liburutegi eta Kultur Etxe proiektua geldiarazi du Ur Konfederazioak

Onin bideratzen denean berriz ekinen zaiola baieztatu du alkateak

Aitor AROTZENA

Liburutegi eta kultur Etxe berria egiteko lanak hutsean uztea erabaki du Udalak ahobatez, Espainiako Iparraldeko Ur-Konfederazioak baimena ukatu baitu, proiektua «urpean gelditzen ahal den hiri eremuan» kokatua dagoelako. Aurten, Onin erreka bideratzeko lanak egitekoak dira eta horren ondotik, berriz ere Kultur Etxearen eta liburutegiaren proiektuari ekiteko modua izanen dela aipatu digu Koldo Erkizia alkateak.

Jakina denez, garai bateko karmeliten konbentuan Kultur Etxea eta ondoan liburutegia egiteko asmoa du aspaldian Udalak, baina gauza batengatik edo berztearengatik gibelera zuten ari da egitasmoa.

Oraingo proiektua BHV Arquitectos enpresak egin zuen, 1.200.000 euro eskaseko aurrekontuarekin. Lanak emateko lehiaketa ere iragarri zen eta bi enpresen eskaintza hartua zuten Herriko Etxean.

Baina Espainiako Iparraldeko Ur-Konfederazioaren idatziak, Kultur Etxearen eta liburutegiaren eraikuntza



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Torturaren kontrako manifestazio jendetsua

Urtarrilaren 19an, *Errepresioa ez da bidea, Aski da!* lemapean manifestazio jendetsua egin zen Lesakako karriketan. Pankarta eramaten, garai ezberdinetan, baina beti inkomunikaziopean torturak salatu dituzten lagunak zeuden. Gibeletik, 500 bat lagun ibili ziren herriko karriketan barrena, torturaren eta lege antiterroristaren kontrako eta Mattin Sarasola eta Igor Porturen askatasunaren aldeko oihuak eginez. Behin manifestazioa bukatuta, Xotero Etxandik, «*tortura euskaldunei sistematikoki egiten zaien praktika*» dela gogorarazi zuen.

lanen tramiteekin ezin dela segitu azpimarratzen du, «*proiektua urpean gelditzen ahal den hiri eremuan kokatua dagoelako*». Gainera, udal kontuhartzaileak eta idazkariak ere bertze arazo batzuen berri eman zuten. Kontuhartzaileak aurrekontu sailari eta Herriko Etxearen egoera ekonomikoaren berri ematen zuen eta idazkariak bertze ar-

lo batzuk aipatzen zituen, hala nola Ur Konfederazioaren baimena, obren zuzendaritza edo Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza kobratzeko ezarritako epeak.

Hauek denak kontuan hartuta, Udalak lehiaketa hutsean uztea erabaki du, eta horren berri emanen dio Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuari.

Frontenis txapelketa

Bortziritako III. frontenis txapelketa antolatu du Batzoki elkarteak. Izen ematea otsailaren 13a arte izanen da eta horretarako, Laura lantzi deitu (686 759 341) edo frontoian izena eman behar da.

Txapelketa otsailaren 16an hasiko da eta larunbat eta igande arratsaldetan jokatu da.

Igerilekurako langileak

Udal kiroldegia ku-deatuko duen Urdi S.L. enpresak, igerileku estalian lanean aritzeko deialdia egin du. Urtarrilaren 31 arteko epea izanen da kurrikulumak Herriko Etxean edo Bera-ko kiroldegian uzteko. Harrera, mantenimendua, garbitasuna, so-roslu eta fitness-wellness lanpostuak beteko dira.




PERTSONAIA

Xabier ZOZAIA

Nafarroako pala txapelkun binaka

Xabier Zozaia herriko palistak, Txiki atzelaria lagun zuela, Nafarroako binakako pala txapelketa irabazi zuen urtarrilaren 8an, hirugarren urtez segidan. Final estu eta larrian 45 eta 44 irabazi zieten Plano eta Zazpe bikoteari. Partida berdindua izan zen eta Zozaia eta Txiki 43-44 gaitzen izan ziren, baina azkeneko bi tantuak egin zituzten, gisa horretara hirugarren txapela segidan janzteko.



ETXALAR

Urte aunitzen ondotik joan den larunbatean itxi zen Landaburua denda

Mari Loli eta Jesus Mari Danboriena anai-arrebak jubilatuta egin dira

Joseba eta Nerea

Joan den astean itxi zituzten Mari Loli eta Jesus Mari Danboriena anai-arrebek Landaburuko atea. Bizi osokolanaren ondotik, jubilatze-ko tenorea ailegatu zaie eta, horrekin batera, denda betiko itxi dute. «*Jaio garenetik ezagutu dugu denda. Amatxi Frantxikarena zen lehenbizi, amak hartu zuen Gerra denboran, eta guk segitu dugu erreleboa azken urteetan*», erran digute. «*Gustura aritu gara lanean. Erosle fijoak izan ditugu, eta inoiz ez dugu arazorik izan*». Etxalar bezalako herri ttikietan geroz eta komertzio guttiago dagoela ikusiz, pena da Landaburua ixtea. Bi denda bakarrik gelditzen zaizkigu orain.

Mozorro-besta

Ortegun honetan, Ortegun Gizona, haurrek hasiko dute inauterietako eromena. «*Urtzaingizen, urtzaingizen, zingar arraultze, bat ezpada bertze, biyek ho-*



ARGAZKIA: GARBIÑE MAIAK UTZITAKOA

Kinto bestak igandean

1981eko kinta da argazkikoa, Etxalarko gazteen artean handienetako bat. Batzuk falta dira, baina ageri direnek ezin ukatu aurpegi «*ona*» dutenik. Igande honetan, hainbat kinta elkartuko dira, bazkaldu eta besta giroan eguna pasatzeko.

be» kantatuz eskean atearako dira. Baserritarrez jantzita, koadrilatan, urtatzak bilduko dituzte, arratsaldean antzerkiei paso emateko. Urterobezala, eskolako haurrek hainbat antzerki eskainiko dituzte auzo desberdinetan, bertso eta trikitilariekin. Hitzordua 15:00etan dute.

HAUNDIEN INAUTERIAK

Astelehenean, otsailak 4, haundien txanda izanen da. Goizean goizetik, baserriz baseri eskean ibiliko dira herriko gazteak. 8:30ean Elutsan geldituko dira gosalteko, eta bi taldetan banatu ondotik, goiko eta beheko auzoetara joanen dira traktoretan. Be-

heko taldeak Antonion eginen du bazkaria, eta goikoek, berriz, Usategietako txabolan. Arratsanean, ez da afaririk izanen. Pintxo-jatea eginen da Elutsan.

Asteartean, goizeko 12etan karrozen desfilea abiatuko da plazatik. Urtero bezala, gisa guztietako mozorroz beteko di-

ra karrikak. Egurdian, bazkaria izanen da Elutsan, eta arratsaldean gazteentzako jokoak.

GAZTEEN GINKANA

Altxataren laguntzarekin, gazteek antolatua, gazteentzat. Ongi pasatzea eta irri egitea da helburua. Baldintza bakarra 16 urtetik goiti izatea. Ortzirala baino lehen Herriko Ostatuan izena behar da parte hartzeko, eta antolatzaileen erranetan sorpresa ugari izanen dira, tartean, aurkezle eta epaimahaikide bereziak. Hiru laguneko taldeak behar dira eta 18:00tan hasiko da. Hurbiltzen dena, ez da datumuko, seguru.

LARRABURUAN ERE INAUTERIAK

Duela urte batzuk arte, karroza ederra egiten zuten Larraburuko jubilatuek, baina azken urteetan egoitzan bertan ospatzen dituzte inauteriak. Aurten ere, asteartean, bazkari ederraren bueltan elkartuko dira.

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalafakzioa
Tfnoa: 629449602 - BERA

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentzurik egokiak
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

LEGARRA
ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

XATURETXEA
ZABALA
JATETXEA
T: 948 637 260 • LESAKA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

J.RAMOS
zolak akutxilatuta eta
barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 • LESAKA

ARANTZA

Bortz lagunek eman dute Herriko Etxeko langile izateko izena

Bertzalde, inauterietan Maia eta Irazu baserriz baserri ibili ziren

Nerea ALTZURI

Urtarrilaren 18an bukatu zen Udalak zerbitzu aniztako langileena emateko epea eta bortz lagunek eman zuten izena. Hortik abiatuta, aste honetan langilea aukeratzeko azterketak egiten ari dira eta heldu den asteetan jakinen dugu zein izanen den hautatua.

Langilearen eginkizunen artean, ur biltegien, kloratzaileen eta hornidura eta sanemendu sareen mantentze lanak daude, baita kontadoreen irakurketa egitea ere. Horrez gain, herriko argiteriaren, hilerriaren, bide eta mendien edo herriko bertze zerbitzuen zaintza lanak egin beharko ditu. Udalaren agiri eta bandoen berri emateaz ere bera arduratuko da.

Inauteriak

Aurtengo inauteriak ere joan dira. Hilaren 17tik 19ra bitarte pasatu dira eta gutti gorabe-

hera ohiko egitarauarekin. Ortzegun goizean Zakutenean ederki gosaldur ondoren, 26 Mozorro Zuri inguru eta lau soinulariak (Gurutze, Ainarra, Itziar eta Age-ralde) eskolako lagunei bisita egitera joan ziren. Halere, aurten bertze bi lagun batu zitzaizkien, Jon Maia eta Jexux Mari Irazu. Bi bertsolari horiek baserriz baserri bertsotan ibiltzeko proposamena egin zieten gazteei eta hauek gustura hartu zuten. Bi taldetan banatu ziren Mozorro Zuriak, bina musikarirekin eta bertsolari banarekin. Lau auzoetan barna etxez-ete ibili ostean, besta saltsa iluntzerako akautu zuten.

Biharamunean herri kaxkoa hartu zuten. Eskolako gaztetxoak ere egun hori aprobetxatu zuten puxka-puxka ibiltzeko. Ilunabarrean 60 emakume inguruk afora egin zuten Pabloan, eta herriko gorapean, berriz, herriko mu-



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXEIA

Goiko argazkian Mozorro Zuriak eskolako lagunei egindako bisitan ageri dira, eta behekoa larunbateko asto karrerako irudia da.

sikaria den Modestoren eskutik dantzaldi izan zen. Batzuentzat seguru-erik goizaldera bitarteko luzatu zen arratsa.

Baina biharamunean ere indar faltarik ez zegoen. Larunbatean 17:00ak aldera hasita, herriko gaztetxoak eta guraso gehienak mozorro kalejiran izan ziren. Guraso Elkarteak emandako meriendaren ondoren, herriaren barna dozentzen erdi bat asto hartuta paseoa eman zuten partaideek. Mozorro Beltzak ere ez ziren urru-

ti ibili. Mezondoa asto karreraren eta sokatiran aritu ondoren, Aterpen prest zuten aforian 110 lagunek gozatu zuten. Maia eta Irazu bertsolariak giro berezia sortu zen. Goizaldeko 3ak aldera altxatu omen ziren gehienak mahaitik. Bi bertsolariak ere ez ziren esku hutsik joan Arantzatik, eta Luis Madariagaren bi makil oparitu zizkieten Mozorro Zuriak. Eta giro paregabea parrandak jarraitu zuten. Aipatzekoa da, jendetza izan zela

inauterietaz gozatzen eta gero eta jende gehiago mozorrotzen dela.

ERRIFEN ZOZKETA

Urtero bezala, Mozorro Zuriak sari ederak zozketatu zituzten larunbat ilunabarrean plazan. Sarien jabeak bertan eta momentuan ateratu ziren: lehenengo saria, telebista bat, Frantxi Tabernak eskuratu zuen; bigarren saria, mikrouhina, Ibarlakoen-tzat; eta hirugarrena, kafetera, Azkilarreko Osil-dekobordara joan zen.

bortzirUDI
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK · KAMUSETAK · BISERRAK · TIKETAK (Nahi duzun neurri - bezeroarekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK · KOLORIBITAK · TITULU BISTETAN · PLANOAK
ENKJADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPEPETA · BULOJO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO · LOGOTIPOAK · FOTOTRIKIA · IMPRENTA

Estreaza, 26 Eskaineko Behea D - BERA - Tel/Fax: 948 631 521

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
Tel: 948 625 475 BERA NAFARROA

ERROTARZAR
harategia

Bertako produktua

Estreaza, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Teloria auzua - LEKARIZ
948 402121 - 026 404317

LINDURRENBORDA
Nahar auzua - LESMA
948 637212

ESKUALDEA

2006an baino bederatziz biztanle guttiagorekin hasi genuen 2007a

Nafarroako Estatistika Institutuak datuak eman ditu berriki

ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa Nafarroan hartzen duen eskualdeak bederatziz bizilagun galdu zituen 2006an. Hala ondorioztatu daiteke, Nafarroako Estatistika Institutuak berriki argitaratutako datuetatik. Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Sunbilla, Urdazubi eta Zugarramurdi 26.398 bizilagun zeuden 2006ko urtarilaren 1ean eta 26.389 urtebete beranduago.

Baztanen bizilagun kopuruak 20 lagunetan goiti egin zuen urte horretan, 1.827tik 7.847ra; **Bertizaranak**, aldiz, 14 bizilagun galdu zituen, 676tik 662ra jautsi baitzen; **Bortzirietan** ere 15 bizilagun guttiago zeuden, baina herrien arabera, badira gorabehera batzuk: Bera izan da biztanle gehien galdu zituena, 43, 3.727 izatetik 3.684 izatera pasatu baitzen; Arantzak ere bederatziz herritar galdu ditu, 657tik 648ra pasatuz eta Igantzik bat guttiago zuen, 607tik 606 pasatuta. Lesakak, aldiz, 34 herritar irabazi zituen eta 2.736tik 2.770ra igaro zen eta Etxalarrek ere bi bizilagun irabazi zituen, 800eko muga gainditzeko aski; 799tik 801era pasatu zen.

Leitzaldean ere 19 lagunetan behera egin zuen biztanleriak, 4.138 izatetik 4.119 izatera pasatu baitzen. Arano-rena izan zen jautsierarik nabarmenena, herritarren %10a galdu baitzuen urtebetez. 141 biztanle izatetik 127 izatera igaro zen, 14 guttiago. Aresok bortz bizilagun galdu zituen eta 293tik 288ra pasatu zen eta Leitza sei guttiago ziren, 2.895etik 2.889ra pa-

satuta. Goizueta izan zen biztanleriaren igoera antzeman zuen Leitzaldeko herri bakarra, aspaldiko urteetako jorari buelta emanez gainera. Sei herritar irabazi zituen eta 809tik 815era pasatu zen.

Mallerreka izan da bizilerian goiti egin duen eskualde bakarra eta 4.000 bizilagunetik pasatu da. 2006aren urte hasieran 3.987 bizilagun zituen eta urtebete beranduago, 4.016. Hemen ere herrika hainbat gorabehera badira. Beintza-Labaienen berdin-berdin zeuden, 258 bizilagunekin; Donamariak sei bizilagun irabazi zituen, 414tik 420ra pasatuz; Doneztebek 1.500 herritarreko muga gainditu zuen. 1.494 izatetik 1.522 izatera igaroz, 28 biztanle irabaziz; Elgorriagan zazpi bizilagun galdu zituzten, 226tik 219ra pasatuz; Eratsunen lau bizilagun galdu zituzten, 172tik 168ra pasatuta eta Ezkurran zazpi guttiago ziren, 193tik 186ra pasatuta; Iturenek lau herritar guttiago zituen, 481etik 477ra igarota; Oitzek lau biztanle gehiago zituen, 150etik 154ra pasatuta; Saldiasak kopurua mantendu zuen, 120 bizilagunekin; Urrotzek bizilagun bat gehiago zuen, 182tik 183ra pasatuta eta Zubietak igoera handia izan zuen, 12 bizilagun gehiago eta 300 biztanleko muga gainditu zuen, 297tik 309ra. **Sunbillan** kopurua ez zen aldatu eta 662 bizilagun zituzten.

Urdazubin 11 bizilagun galdu zituzten, 359tik 348ra jautsiz eta **Zugarramurdi** hiru irabazi, horrela, 223tik 226ra pasatuz.

www.nafarroakotxapelketa.com

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

08

1. kanporaketa
Otsailak 8, Leitza
Aurrera Elkarte, 21,30ean
2. kanporaketa
Otsailak 9, Ituren
Udaletxea, 19etan



artolatzaleak:
Nafarroako
Bertsotzale
Elkartea

laguntzaleak:
ttipi-ttapa

SUNBILLA

Amaia Arretxea izendatu dute eskolako Guraso Elkarteko lehendakari

13 hurrekin eskolako jangela irekita dago urtarrilaren 7az geroztik

Jaione OTXANDORENA

Joan den urtarrilaren 21ean, Sunbillako eskolako gurasoek bilera egin zuten. Bilera horretan, datozen bi urteetarako zuzendaritza batzorde berria aukeratu zen. Ordurartekoek karguak utzi eta honela banatu dira lanak: lehendakaria Amaia Arretxea izanen da; lehendakariordea Koro Zelaieta; idazkaria Idoia Zugarramurdi; bokalaka Aitziber Marizkurrena eta Jaione Otxandorena. Heldu diren bi urteetan, Guraso Elkarteko kide berriek eskolako gaiez gain, Olentzero, Errege kabalgata, inauterietako haurren karroza eta joan den urtarrilaren 7an martxan jarritako eskolako jangelaren ardurak hartu dituzte.

Eskolako jangela martxan

Hilabetetan harat eta honat ibili ostean, Udala, Enplegu Bulegoa, Nafarroako Kutxa eta



Lerro hauek idazterakoan oraindik ez ziren aurtengo inauteriak pasatuak. Hortaz, hurrengo alean emanen dugu inauterien nondik norakoen berri.

Guraso Elkartearen laguntzarekin, urtarrilaren 7an eskolako jangela martxan jarri zen. Behoko eskolako goiko solairuan konponketa batzuk egin ziren eta bertan jarri dira sukaldia eta jangela. Momentuz, 13 haur joaten dira bertara bazkaltzera, baina datorren irailetik aitzinera, hau da, ikasturte

berria hastearekin batera, haur gehiagok izena emago dutela espero da. Hala ere, egunero joaten diren haurrez gain, nahi duenak tardeka ere eraman ditzakete beren seme-alabak. Horretarako aitzinako egunean, jangelako sukaldaria den Rakesel Urtzegiri abisatzea nahikoa izanen da.

Orientazio ikastaroa

Datorren otsailaren 11tik 15era, 18:30etik 20:00etara, lehenengo urratseko orientazio ikastaroa izango da Ulibeltzak Elkartean. Irakaslea Jose Ignazio Murua izanen da eta ikastaroan izena ematen duen bakoitzak ondoko materiala eraman be-

harko du: transportadorea, erregela, iparrorratza, lapitza eta goma. Izena Itturburun, Fondan edo Ariztigain kanpalekuan jarriko diren zerrendetan eman beharko da, otsailaren 10a baino lehen.

Txirrindularien maillotak

Sunbillaren izena dararamaten maillot berriak egiteko asmoa dago. Interesa duenak herriko ostatueta paratuko diren zerrendetan eman beharko du izena.

2008ko bestak antolatzen

Oraindik urruti baldin badaude ere, bestak antolatzeko lanak hasiak dira. Otsailaren 9an elkartuko dira Antrotoki, Sunbillako gazteak, Guraso Elkartea, Antzakaitz Kultur Taldea eta Udaleko arduradunak aurtengo bestak presatzeko. 17:00etan izanen da bilera, Ulibeltzak Elkartean.

APARAN, S.A.
BROKOLALIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080
Fax: 948 460 334
DONEZTEBE

Behetik
AULKI JASOTZAILEAK

Añorgatik 14
Tel: 943 372 870
Fax: 943 372 870
Fax: 943 365 586
behetik@behetik.com
20018 DONOSTIA

MALERREKA

Patxi Olazar da Doneztebeko Elkartasuna Kasinoko presidentea

Avelino Mitxeo lehendakari ohiak bere burua aurkeztu zuen kargurako

ttipi-ttapa

Doneztebeko Casino La Union edo Elkartasuna Kasinoko presidente berria du urtarrilaren 20az geroztik, Patxi Olazar erremontista. Urteko batzarra egin zuten orduan, eta zuzendaritza batzordearen erdia berritu zuten, hau da, sei kidetik hiru.

Zuzendaritza batzordea sei kidek osatzen dute eta urtero hiru atera eta bertze hiru kide berri sartzen dira, normalean, ateratzen direnek izendatzen dituztenak. Zuzendaritza aukeratzeko eta ardurak hartzeko arazoak izaten zirelako proposatu zuten sistema hori.

Aurtengo batzarra nobedadea, ordea, lehenagotik zortzi urtean presidente izanda-



ARTXIBOA

Patxi Olazar izendatu dute elkarteko presidente.

ko Avelino Mitxeok ekarri zuen, berriz ere lehendakari izateko aurkeztu baitzuen bere burua. Baina azkenean, aldeko 14 botorekin eta

kontrako 11rekin Patxi Olazar izendatu zuten presidente, Juan Mari Artazkoz diruzain eta Mikel Santesteban idazkari kargurako. Horren-

bertzez, Karmelo Rekartek, orain arteko lehendakariak, Olazarri utzi dio kargua.

20 BAZKIDE BERRI

Bertzelako gaiak ere landu zituzten Kasinoko bildutakoek. Tartean aurten 20 bazkide berri sartu direla, 17 berriak eta bertze hiru aitaren ordeztuak. Horrez gain, kontuen berri ere eman zuten: 14.000 euroko superabitarekin itxi zuten 2007a, ostatua berritu eta hainbat lan egin direla —eraikina- ren aitzinaldea eraberritu...— kontuan hartuz.

Urte berriari begira hainbat ideia dituzte buruan, hala nola, iazko arrakasta ikusita, Basurede Bikers Festaren bigarren edizioa antolatzea.

FLASH

Sutea Eratsungo Apeztibehian

Suak ez du etenik eta eskualdean bat baino gehiago dira denbora laburrean suteak kaltetu dituen etxeak. Azkena Eratsunen. Oraindik ezagutzen ez diren arrazoiak tarteko, urtarrilaren 21eko goizean, Apeztibehia etxeko sabaia eta teilatuaren zati bat kiskali ziren. Azken solairuan koltxoak, altzariak, arropak zein baxerak zeuden eta guztiak bereganatu zituen suak. Baina hori ez aski eta bertze susto bat ere eraman zuten etxe-koek. Sua zabaldu zen momentuan azken solairuko balkoian Juana Bendoiro etxeko emakume bat arropak hedatzen ari zen, eta handik atera ezinik gelditu zen. Azkenean, bizilagunek erreskatatu behar izan zuten. Kalte materialak nabarmenak izan arren, sutea gertatu zen momentuan etxean zeuden Juana eta bere anaia Jose Benjamin onik atera ziren.

Oizko ur depositu berrirako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak 54.556 euroko dirulaguntza onartu du Oizko ur deposituko lanak egiteko, harat joateko bidea hobetzeko eta iturburutik banaketa sarerako tubo berriak sartzeko. Inbertsioa 168.926 eurokoa izan da. Ur depositu berriak 210 metro kubiko izanen ditu, 40 zentimetroko lodiera izanen duten paretak eta bi zati berdinetan banatuko da. Depositura joateko bideari dagokionean, oraingoa hobetu egingen da.

www.ttipi.net
ERREZETA BILDUMA
 tradiziozko errezeta
 gozagarriak

arropak - maindireak
 mantak - nordikoak
 toallak - kortinak
 alfombrak
Goya
 Altsate, 5 - Tel: 948 630 083

TXOTX denboraldi berria hasi dugu

102 Meaka auzoa
 20304 IRUN
 Tel.: 943 623 130

- Asteguneta, arratsaldeko 6,30etik aurrera zabalik
- Asteburuetan, eguerdian ere zabalik
- 250 lagunendako lekua jarrita
- 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizaturia.
- Sagardoa bertan egiten dugu, sagarra Irun, Hondarribia eta Zarauztik ekarriz.

ITUREN

Nafarroako Bertsolari Txapelketako 2.saioa herrian jokatu da otsailaren 9an

Arituko diren 6 bertsolarien artean Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu daude

Arkaitz MINDEGIA

Heldu den ortziralean, otsailak 8, hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 37. edizioa eta txapelketari emateko bi kanporaketa jokatu dira. Lehen Leitzan jokatu da, egun horretan, eta bigarrena, herrian, bihar-munean, otsailaren 9an. Leitzan egin bezala, sei bertsolari lehiatu dira Iturenen ere eta tartean bi herritar: Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu. Horiekin batera, Ander Fuentes zubietarra, Xabier Terreros lesakarra, Garaiz Taberna beraterra eta Xabier Legarreta arnorrarra arituko dira bertsoetan. Bi kanporaketetan puntuaziorik altuena jasotzen dutenak txapelketan aitzinera segituko aukera izanen dute, eta finalurrekoetan ariko dira.

tzeko aukera izanen dute, eta finalurrekoetan ariko dira.

IAT errebisioa

Eskualdeko bertze herrietan bezala, ibilgailuen azterketa teknikoak Iturenera ere bisitatu egingen du. Otsailaren 4 eta 5ean herriko plazan izanen da.

Saharar herriari laguntza

Baztan, Bortziraketa Malerrekan martxan jarritako kanpainarekin bat eginez, Iturenko eskolan ere Saharara eramateko janari bilketa egin da. Azken urteetan bezala, herriko haurrek beraien laguntza eman dute janari ezberdinak bilduz. Lerro hauen bidez, eskerrik asko deinei.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko gaztetxoek hasi dituzte inauteriak

Aurten ere, eskolako haurrak izan dira inauterietako mozorroak eta joareak kalera atera dituzten lehenbizikoak. Argazkia joan den urtean ateratakoa da, eta hau idazterakoan oraindik inauterien berri ez genuelako, hurrengo kronikan kontatuko dugu nola joan diren.

Pinturas Pikabea

Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guziak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zelaiñ guzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

BEINTZAKO OSTATUA

T: 948 45 00 14

www.beintzakostatuak.com

www.urbizteguiak.com

17710 BIZTZA LABAEN

ORBELA

Pitti

estabazteak

Tel: 616 513 491

Mendiaketa sarea 34 ZUBIETA

LITERATURA

Mikel Onsalo aresoarrak irabazi du Nafarroako mikro-Ipuin lehiaketa

Nafarroako 20 ikastetxetako 359 lan aurkeztu dira

ttipi-ttapa

Nafarroa osoko 359 lanen artean II. Mikro-Ipuin lehiaketako epaimahaiak Mikel Onsalo aresoarraren *Udazkena* lana aukeratu du. Euskara Kultur Elkaragoak eta Pamiela argitaletxeak elkarlanean antolatzen duten lehiaketaren bigarren edizioa zen hau eta Nafarroako 20 ikastetxe diferentetako 359 idazlan aurkeztu ziren. Guztien artean Leitzako Amazabal Institutuan DBHko 2. maila egiten ari den Mikel Onsalo 13 urteko gazteak irabazi du.

Lehendabiziko sariak gain bertze lau ohorezko aipamen ere banatu dira, eta horietatik bi ere Amazabal Instituturako. Maila berean dagoen



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Mikel Onsalo aresoarra, lehiaketako irabazlea.

Patricia Vicenteren *Abarkak* lanak jaso du horietako bat, eta bertzea, *Nire lilia* lanak, DBHko 3. maila egiten ari den Judit Saizarren ipuinak, hain zuzen.

Saridunek diploma eta liburu sorta bat jasoko dute, baina sari na-

gusia Kirmen Uribe idazlearen bisita izanen da. Ilrabazlearen ikastetxera joanen da Uribe. Hala, otsaileko hirugarren astean joanen da Leitzako Amazabal Institutura idazlea, eta han egiten da sari banaketa. Epaimahaiak lanetan,

bertzalde, Alberto Barrantiaran Berriako kazetaria eta idazlea; Inma Errea idazlea eta itzultzailea; Migel Asiain literaturako irakaslea eta Joxe Migel Bidador idazlea eta literaturako irakaslea aritu ziren. Guztiek lanen kalitatea nabarmendu dute, aitzineko edizioan baino hobea. Horrez gain, aipatu, 2006an 110 lan aurkeztu zirela, eta aldi honetan, 249 gehiago.

Parte hartu duten ikastetxeen artean, Leitzako Amazabal Institutuaz gain, Lesakako Irain Ikastetxea eta Tantarumairu Ikastola, Berako Ricardo Baroja Ikastetxea eta Jesusen Bihotza Ikastetxea eta Doneztebeko San Miguel ikastetxea daude.

ARRANTZA

Inguruko erreketan amorrain arrantza debekatu dezakete

Oraindik erabaki ez bada ere, horixe da Nafarroako Gobernuak bertako erreketan amorrain kopuruaren gainbehera gelditzeko pentsatu duen neurrietako bat. Hala nola, erreken zaintzea handitzea, habitataren hobetzea, debekualdien arautzea, Bidasoa errekan bertako amorrainarekin errepoplatzea, arrantzatu daitezkeen espezie kopurua handitzea eta izokin arrantza-rekin lotutako ekimenak. Errekak zaintzeko, akordioak sinatuko dira arrantza-le elkarrekin, zaintza lanak egiteko.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak
mantelak
edredoi nordikoak
kuxinak
ohe estalkiak
maindireak
toailak
edredoi-azal nordikoak



LEITZA

Udaletxean egokitze lanak egiteko dirulaguntza eskatu du Udalak

Kanpotik eta barnetik eginen diren obrak 307.000 euro kostako dira

Joseba URKIOLA

Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuak kudeatzen duen Vianako Printzea erakundeari udaletxea moldatzeko dirulaguntza eskaera egin dio. Orotara, 307.000 euroko aurrekontua du eskaerak eta hiru esparru zehatzetara zuzendua dago.

Lehen atalean udaletxearen kanpokalde eta plazako frontis zaharra sartzeko dira. Lehen solairuko leihoak aldatu nahi dira, udaletxearen harrizko fatxadak garbitu eta birmoldatu eta harrizko pilotalekuko pareta garbitu. Honek guztiak 162.000 euroko inbertsioa izanen du.

Bestetik, leitzarguztiek udaletxearen zerbitzu oro behar bezala jasotzeko dira. Igogailua jartzeko eskaera egin du Udalak. Hartara, udaletxeak aspaldidanik duen gabezia garrantzitsuenetako batekin amaitzea lortuko luke.



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Udaletxearen kanpokaldean zein barrukaldean egin nahi ditu obrak Leitzako Udalak.

Bigarren eskaera honen aurrekontua 85.000 eurokoa da.

Azkenik, lehen solairuaren egokitzapena eskatu da. Lehen solairuko hainbat gela ez daude oso egoera onetan eta hori hobetzea da asmoa. Azken eskaeraren aurrekontua, 60.000 eurokoa da.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako kanporaketa

Gain-gaieran dugu aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Otsailaren 8an hasiko da, eta Leitzari egokitu zaio hasiera ematea. Lehen kanporaketa orduan jokatu da, eta bertan

lehiatuko diren bertsolariak Diego Riaño, Juan Mari Lopez, Iker Iriarte, Ekaitz Astiz, Aimar Karrera eta Iñaki Aleman izanen dira. Biharamunean jokatu da bigarren kanporaketa Iturenen, eta ondotik finalurrekoak etorriko dira. Guztira 25 bertsolari hartuko dute parte.

LEITZALDEA

Mendialdeko Agenda 21eko herriak bitartean banatu dira

ttipi-ttapa

Eremu zabala eta ondorioz, eskualdeko sentimendua banatua eta parte-hartze eskaera. Horiexek foroak egiterakoan Mendialdeko Agenda 21ean parte hartzen duten zortzi herriak bitartean banatzearen arrazoi nagusiak. Mendialdea izenak Araitz, Arano, Areso, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberri biltzen ditu, baina herritarrei parte hartzeko aukera errazte aldera bitartean banatu dira. Batetik, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzadaude, eta bertetik, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri. Bi lantaldeak ere martxan dira, eta Ttipi ttapak biltzen dituen lau herri horien lehen bikura urtarrilaren 15ean egin zen. Orduan ingurumena, lurraldea, hirigintza, mugikortasuna, tokiko eta eskualdeko kudeaketa eta ingurumen arloak (ura, hondakinak...) aztertu zituzten. Bigarren bilkura, otsailaren 26an eginen da Leitzan, eta kultura, kirola, euskara, heziketa, gizarte eta osasun zerbitzuak, ekonomia eta tokiko eta eskualdeko kudeaketa izanen dituzte aztergai.

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga Ind. - Barreta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

Tfnoa: 948 581 468
 Mug: 630 354 818

Santiago, 59 2C
 ELIZONDO

ARESO

Herriko kirolariei dirulaguntzak emanen dizkie Udalak

Eskaera orria bete eta gastuak zehaztu beharko dira udaletxean

Juana Mari SAIZAR

Kirola egiten duten gazteei dirulaguntzak emango dizkie Udalak 2007ko dirulaguntzak eskainiz. Eskaera orria bete eta zein motatako kirola eta zenbateko gastuak izan dituzten aurkeztu beharko dute kirolariek udaletxean eta hortik abiatuta, kirol koorkinatzaileak bakoitzari dagokiona ordainduko die. Aurrekontuetan honetarako zegoen dirua emango da.

Doako informatika ikastaroa

Informatika eta Internet

zerbitzua hobeki eza-gutzeko helburuarekin, ikastaroa eskainiko da otsailaren 4tik 15era Areson, *Hurbildu IKTe-tar@* izeneko kanpainaren barrenean. Emakumeentzako eta hiru-garren adinekoentzako ikastaroa izanen da eta dohainik. Oinarritzko windows, Internet eta posta elektronikoa landuko dira eta 9:30etik 12:00etara iraunen du. Izen ematea aurretik egin beharko da 639 900318 telefonoan (8:30etik 14:00etara) eta ikasle kopurua mugatua izanen da, 12 lagunekoa.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Malerreka-Leitzaldearen kontra pilota apostua
Mandriladorako langile batzuk urteko azken afarian apostua egin zuten. Desafioan hiru biren kontra aritzekoak ziren, eskuz eskuzko pilotan, bi aresoar eta leitzarra, SaldiAsko eta EzkurrAko baten kontra. Hasieran Aresoko plazan jokatu behar zuten baina goiz horretan egin zuen izotzarekin hezetasun handia zegoela eta, Leitzako frontoira joan ziren. Emaitza 22 eta 18koa izan zen, Malerrekakoak garaile.

Sokatira taldea berritua

Sokatira taldeak partehartzaileek berritu ditu, oraingoz hiru berri. Aurreko astean egin zuten denboraldi berriari dagokion bilera, eta horren

inguruko berri izatean jakinaraziko dugu.

Mikel Onsaloren ipuina saritua

Mikel Onsalo aresoar gaztea Nafarroako mikro-ipuina lehiaketaren

irabazlea izan da. 359 lanen artean, *Udazkena* izeneko bere lana aukeratu zuen epaimahaiak. Eta saria, liburu sorta eta idazle baten bisita eskolara. Xehetasunak 17. orrialdean.

ARANO

Kontzejuko taberna itxita egongo da otsail osoan

Martxoan zabalduko dute berriz

Kontxi KLABER

Emaitz eta Enkarniren azken hilabetea urtarrila dute eta, otsail gutxian itxita egongo da Kontzejuko taberna. Hala ere, dagoeneko interesatuak azaldu dira eta martxoaren hasieratik berriz irekiko dute. Gaztazeneko Imanol eta Ainhoa bere neska la-

guna izango dira arduradun berriak.

Inauteriak urtarrilean

Denok dakigu aurten oso goiz direla inauteriak eta are goizago asetebez aurreratuta, ohi-tura den bezala. Gurean joan den asteburuan izan genituen, urtarrila-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere ez da umorerik faltako inauterietan.

ren azken larunbatean, 26an. Egun horretan, auzoz-auzo eta etxez-etxe eskea eta puska biltzea egin zen tri-

kitilarien laguntzarekin eta bazkalondorean zagi dantza egin zen. Trikitilariak tabernetan ibiliziren giroa alaitzen afa-

ri herrikoia artean, eta ondorean berriz, Imuntzo eta Beloki taldearekin dantzaldia izan zen goizaldera bitartean.

GOIZUETA

Puntako ñoteak antolatu ditu Mozorroen Taldeak otsailaren 3, 4, 5 eta 9rako

Lantzeko inauterien errepresentazioa eta Elektrotxaranga, aurtengo nobedadeak

Esteban AROTZENA

Ñotea abudo ekarri baldin badu ere kalendarioak aurten, ez du mozorroak ustekabeen harrapatzea lortu, azken astetan burututako lanari esker dena antolatu baitauka karnabalen protagonista den taldeak hurrengo igandean hasiko den festa haundi horretarako.

Urteroko osagaiak izanen ditu aurtengo ñoteak ere, igande arratsaldeko eskolako umeen Zagi Dantzarekin hasiz eta otsailaren 9ko Kontuen Egunarekin bukatuz. Azkeneko ttipitapan iragarri genuen Lantzeko inauterien errepresentazioa izanen da berrikuntza nagusia (17:30ean hasiko da), egun berean, ilunabarrean eta arratsean, he-



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Urtero bezala, asteartearekin eginen da Zagi Dantza.

rriar barrena ibiliko den Iruñeko Elektrotxarangarekin batera. Musika-rekin jarraituz, esan, igandeko plazako soinua Izer eta Alabier tritilarien esku egonen dela; astelehenean, berri, Saioa eta Alabiarrek joko dute, eta as-

teartean T-Z berbena taldeak. Musikarekin lotura duenez, aipatu, ederra izanen dela aurten ere herriratu bezain pronto mozorroek dultzaineroekin astelehen ilunabarrean eginen duten kalejira eta poteoa.

Guraso eskola

Aurten ere martxan da herriko eskolak, bertako guraso elkarteek eta zerbitzu sozialak antolatu duten Guraso Eskola izeneko hitzaldi sorta.

Otsailetik apirila bitarteko sei saikiosatzen dute egitaraua, guraso

guztien artean egindako inkestan aukeratutako gaiekin. Otsailaren 11n eta 25ean burutuko dira lehen bi hitzaldiak, Amaia Vazquezen eskutik, eta biak gai berarekin: sexualitatea. Martxoko eta apirilekoen berri hurrengo kroniketan emanen dugu. Hitzaldiak eskolako jangelan izanen dira 15:00etatik 16:30era.

Martin Etxeberria garaile Betelun

Araitz-Beteluko Kroza jokatu zen Betelun ilbeltzaren 20an eta kadete mailan Martin Etxeberriak irabazi zuen, bere anaia Patxi azken metroan gaudituz. Pilotan jokatzear gain—eta ongi gainera—, lasterkari eman dio Martinek hila-beteotan eta emaitza onekin, ikusten denez.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio Iriarte 33,1º D · 31700
948210963 iruñea · paulino caballero 15,1º A · 31002

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
Kontaketa ordulegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordua eskatu

ONDORRIETATIK INDARTZEKO:
Diabetes · Aorta · Zizareak · Larru azaleko alergis · Buruko mina
Ginen izerdia · Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERRESKURATZEA:
Miopia · Bista alferria · Estrabismoa · Begi louseak-kataraktak

GIHARRE ARAZOAK:
Bixkartzea · Artritis · Erreuma · Artrosia · Lumbalgia · Bihurdurak · etab

Telefona: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

BAZTAN

Azpiegiturak hobetzeko 1,8 milioi euroko laguntza onartu du Nafarroako Gobernuak

Almandoz, Arizkun, Elizondo, Erratzu eta Oronoz-Mugairako

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 1.862.967 euroko laguntza emanen die Baztango bertz herri azpiegitura lanak egiteko. 2005-2008rako onartutako Tokiko azpiegituen Planean sartzen dira dirulaguntzak eta Baztanen jasoko dutenak Almandoz, Arizkun, Elizondo, Erratzu eta Oronoz-Mugairi dira.

Almandoz herrirako, 103.349 euro ematea erabaki du Gobernuak, herriguneko ur hornidura eta saneamendu sarea eraberritzeko. Inbertsioa 171.264 eurokoa izanen da. Altxatuko diren karrikak ere zolaberrituko dira eta elizarako eskaileretan harlauzak paratu. Horretarako 109.870 euroko inbertsioa egin beharko da, eta laguntza 70.563 eurokoa izanen da.

Arizkungo herriguneko sarreen berritze

eta zalaberritze lanen hirugarren fasean 208.670 euroko inbertsioa egingen da eta Gobernuaren dirulaguntza 97.954 eurokoa da. Ondoko karriken zolaberritze lanetarako 374.091 euroko inbertsioa egingen da eta Gobernuak 261.863 euro bideratuko ditu. Bertze 86.144 euro emanen dira zeharbidea zolaberritzeko, 148.119 euroko inbertsioari aurre egiteko.

Elizondok 84.913 euro jasoko ditu Herriko Etxeko teilatua eta aitzinaldeko paretak zeharberritzeko. Inbertsioa, berriz, 121.304 eurokoa izanen da. 775 metro koadroan teilak eta euriarentzako hodiak aldatuko dira eta aitzinaldeari dagokionez, garbitu eta pintatu egingen da.

Erratzuk bertze 83.635 euro hartuko ditu eta herrigunea horni-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Iruritako Anduezeneko teiltuaren zati bat kiskalita Iruritako Anduezenek kalteak jasan zituen joan den urtarrilaren 15ean sute baten ondorioz. Suak etxeko teiltuaren zati bat hondatu zuen, 20-30 metro koadro inguru, baina ez zuen kalte pertsonalik eragin. 10:00ak aldera piztu zen baina ordu erdi barru kontrolatua zuten suhiltzaileek. Baztango etxe batean denbora laburrean sua pizten den bigarren kasua da Iruritakoa. Aitzinekoa Elbeteko Lekuederrea etxea izan zen. Batean zein bertzean haize haundiko egunetan izan dira kalteak.

tzeko argindarraren transformazio gune bat eraikitze erabiliko da. 167.271 euroko inbertsioa egingen da.

Oronoz- Mugairin herriguneko saneamendu sarearen zati bat berrituko da. 423.955 euroko inbertsioa egin beharko da horretarako eta Gobernuak 255.835 euro emanen ditu. Ur-hornidura sarearen zati bat berrituko da eta ur-zikinaren saneamendu sarea berritik egin, biak bereizteko. Zola altxatuko den lekuak gero berrituko dira. Horrez gain, Baztango Udalak bere gain

hartuko ditu herriko zeharbidea moldatzeko lanak, baita argiteria eta gas sareak ere.

San Anton

Ilbeltzaren 17an San Anton Elizondoko zahar etxeak ohitura legez, Udaletxeko bakoian zoketa egin zuen. Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu, eta jende guttiago bildu zen. Remigio Lizasoainen falta ere nabaritu zen, bera baita egun horretan baztan zopen arduraduna. Aurten, ordea, udaletxeko gorapean bertako produktuak salgai jarri ziren.

Hauek zenbaki sari-tuak: aretzea Karrika ostatuan saldua Cristina Ziauriz elizondarrarentzat; zeria Zigan saldua Iruritako Mari Lurdes Apeztxerentzat; bi bildots 12.557 zenbakia-rentzat Dantxarinear saldua; magra Elizondoko Garcia Mata botikan saldua, Iruritako Alicia Arraztoarentzat.

Kasu!

Berriki Lekaroz eta Elizondon bi lagun ibili dira Repsolen izenean, gas errebisioak egiteko asmoz, eta eskura ko-bratzen. Iruzurtiak dira!

Maderas
GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerioak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Izalde kamika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Erratzuko frontoiko teilatuaren zati bat erori da bapatean

Frontoian lanean ari zirenak garaiz atera ziren

Maite OTEIZA

Erratzuko Etxelebertz pilotalekuko teilatuaren zati haundi bat erori zen joan den ilbeltzaren 22an, 14:30ak aldera, moldaketa lanak egiten ari zirenean. Zorionez, moldaketa lanean ari ziren *Reformas Reyno de Navarra* enpresako hiru langile teilatua erori baino lehenxeago atera ziren eta istripuak ez zuen kalte pertsonalik eragin.

Frontoia da Erratzuko kirol instalazio estali bakarra, 1958an luzeko pilota plazari teilatua jarri zitzaionetik. Geroztik ez zen moldaketa lanik egin eta orain Baztango Udala ari zen zaharberritze lanean, Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuaren laguntzarekin egiten ari den instalazioen mantenimendu eta zaharberritze programa baten barnean. Erratzuko frontoiaz gain, Baztanen Almandoz eta Elizondoko frontoia ere moldatzen ari dira eta Elizondoko Giltxaurdi futbol zelaian belar artifiziala jartzen ari dira.

Udalak azaroaren 28an eman zizkion Erratzuko frontoiko lanak *Reformas Reyno de Navarra*, 447.304,77 euroren truke.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Itxura honetan gelditu zen Erratzuko frontoia teilatu zati bat eroritakoan.

Gizakunde, Orakunde eta inauteriak

Eguberrietako turoiari akitzeko zorian, Gizakunde ailegatu zaitugu. Dagoeneko Aniz, Berroeta eta Orabideko inauteriak pasatuak dira, Gizakunde ere bai. Gizakunde Egunean, beti bezala, hitzorduari Arizkun eman zitzaion hasiera. Gamioxarra etxean merienda egin eta mozorroak jantzi ondotik, herriko plazan lau sagardantza aritu ziren: Arizkun, Erratzu, Baztan eta Lekarozkoak. Segidan, Erratzu aldeira abiatu ziren mozorroak, Jantzilori, Bizkargain fanfarrea, Gallartako joaldunak, Hartza eta hartazaina, sa-

garadantzariak eta Baztango txistulariak. Erratzun herriko buelta egin zuten, Xumuxuan, Zubipuntan, Uhaldean eta plazan geldialdiak eginenez eta sagardantzak dantzatu. Azkenik herriko plazan Jantzilori erre eta Etxelebertzeko Txokoan afaria ederra egin zuten, bertsolariak eta fanfarreak alaituta. Eta orain ailegatu zaituguna Orakunde da. Ziga da Orakunde ospatzen duen lehenbiziko herria (aitzineko ortzileria); Amaiurren astearekin egiten da; Erratzun asteazkenean; eta Arizkun, Elbete, Elizondo, Gartzain, Lekaroz, Iruirita, Arraioz, Oronoz eta Almandozen ortzegunean; Azpilketan or-

tzirlean eta Anizen larunbatean. Egitarauak herri guztietan iruditsuak dira: meza, herrian barrena kalejira, bazkaria, jokoak, oilarra, merienda eta besta akabaila.

Amaiurtik Pekinerat

Nafarroako Kutxak abenduan txartelarekin erosketak egiten zituzten guztien artean Txinako Joko Olinpikoetarako bidaia eta jokoetarako sarreraren zozketa egin du. Hara non, lehenengo honetan, saria Baztanera etorri da, Amaiurko Junkal Urrutiari lau pertsonendako bidaia tokatu zaio, abuztuaren 6tik 16ra bitartean. Pasatu ongi Pekinen, Junkal!

PERTSONAIA

J. A. PEROTXENA

Baztandarren Biltzarrako logotipo berriaren egilea

Juan Angel Perotxena Elizondoko diseinugileak aurkeztutako lanak irabazi du Baztandarren Biltzarrako logotipo lehiaketa. Hemendik aitzinera logotipo horixe erabiliko du Baztandarren Biltzarrak. «*Xaloa izanagatik indarra adierazten duela*» aipatu du epaimahaiak lanari buruz. Hain zuzen, bi hitz horiek ederki adierazten omen dute Baztandarren Biltzarra bestaren eta erakundearen izaera herrikoia.

Arraiozko zubia

Maiatzaren 4az geroztik hankaz gora dago Arraioz, batetik, uholdeek utzitako ondorioak tarteko, eta bertetik, sanemendu lanak direla-eta. Halere, aipatu, saneamendu obrak aprobetxatuz, Arraiozko zubia zabaldu egiten dutela, gaur egun bi ibilgailu gurutzatzea ezinezkoa baita.

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Asteleheneetik larunbatera
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

MENDIALDE
Jatetxea

T: 948 453 050
N: 121-B, 66 km
T. AMAIUR

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

URDAZUBI

lazko uholdeen kalte ordainak %100ean subentzionatu ditu Nafarroako Gobernuak

Lanak ere akituak dira

ttipi-ttapa

Joan den urteko maiatzaren 4ko uholdeek kalte nabarmenak eragin zituzten herrian. Kalte horien inguruko kontuak egin behar izan ziren gerora, eta orain, Udalak Nafarroako Gobernuari aurkeztu zituzten gastuen %100a subentzionatua gelditu da. Dirulaguntzez gain, uholdeen ondorioz, egin behar izan diren konponketa lanak ere da-goeneko akituak dira.

Inauteriak hastear

Bertze herri aunitzetan bezala, gurean ere gain-gaingan ditugu inauteriak. Ortzirak honetan, otsailak 1, hasi eta igandean, astelehenean eta asteartean izanen dute segida. Ortzirak hau haurrentzako egun handia izanen da. Mozorroto eta arratsaldean eskolan txokola-

da izanen dute. Baina horrez gain, 8 urtetik 15 urtera bitartekoak eskean aterako dira. astelehenean eta asteartean.

Gazteak igandean hasiko dituzte inauteriak, otsailaren 3an. 12:00etan bazkaria egiten dute Patxi Etxean, eta Dantxarinean barrera eskean ibiliko dira Modesto akordeoiliariekin. Arratsean aforia eta dantzaldia izanen dute Indianobaitan.

Astelehenean, otsailak 4, 10:00etan bilduko dira, eta Leorlas, Alkerdi eta Larraintan barrera eskean ibiliko dira. Gauean, berriz, aforia eta dantzaldia Indianobaitan.

Asteartean ere 10:00etan bilduko dira eta Iriberre, Landibar, Teileria eta herrian egiten dute itzulia. Arratsa ailegatzearekin batera, aforia eta dantzaldia egiten dute Indianobaitan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere astelehenean eta asteartean eskean ibiliko dira gaztetxoak.



ARGAZKIA: LANDER SANTAMARIA

Plaza berriarekin herria itxuraberritua

Urtarrilaren 11n inauguratu zuten herriko plaza berria, ingurua itxuraberritua utzi duen plaza, hain zuzen. Monastegiaren itxura aunitz hobetuko zelakoan, Nafarroako Mendialdea sustatzeko planaren barrerean sartu zuten egitasmoa. Eta halaxe izan da, itxuraz hoetu egin da. Bidearen ondoan, monastegitik frontoi berrirako sarbidera bitartean pareta baten bidez itxi egin dute, frontoi zaharraren harriak erabiliz gainera. Horrez gain, autoentzako aparkaleku berriak egin dira, eta monastegiko errementeri zaharra ere pareta batekin inguratu da. Lanen aurrekontua 204.079,50 eurokoa izan da, eta horietatik 131.073,29, %65, Nafarroako Gobernuak bideratu ditu. Inaugurazio ekitaldian, bertzeak bertze, herriko, Nafarroako Gobernuko eta Cederna Garalurreko ordezkariak izan ziren.

m
bentamiguel
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

ARMUA
Jatetxea

Tel: 948 599 121

Zuzenbidea errep. 3. km
URDAZUBI

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948 635458

BAR-OSTATVA
MON

ZATOZTE
TRAGOA
EDATERA

ESTANCO - TEBICO DENDA
ANZEN-BORDE
VRDIX - VRDZVBI

ZUGARRAMURDI

Karrikan argi gehiago paratzeko 56 mila euroko laguntza emanen du Nafarroako Gobernuak

Bertzeak bertze, 29 farol artistiko paratuko dira

MARGARI eta KORO

Nafarroako Gobernuaren Tokiko azpiegiturretara bideratutako planaren barruan, 56.122 euroko laguntza onartu du Nafarroako Gobernuak Zugarramurdirako. Diru horrekin 29 farol artistiko paratuko dira, eta horrekin batera, egin beharreko argiteri sarea berrituko da. Lanen inbertsioa 80.175 eurokoa da.

'Martin Ttiki' gogoan

Aitzineko Ttipi-Ttaren ale batean «betiko zikiro-jatezale» baten berri ematen genuen (Elizondoko Felipe Santamaria); eta orain bertze baten berri eman behar dugu, baina berri txarra dugu oraingo honetan: *Martin Ttiki* hil zai-gula.

Martin Aizpurua zuen izena baina denek *Martin Ttiki* bezala ezagutzen genuen (batere ttikia ez zelako hain juxtu). Itziarkoa zen eta 40 bat urte zituen zikiro-jatera etortzen. Gizon gozo eta prestua izateagatik gure herrian oroitzen onatzen du.

Urtarrilaren 28an bere hautsak herrira ekarri, eta lezean barreiatu zituzten. Zauden tokian zaudela ere, ongi izan *Martin Ttiki*.

Urtarrilaren 28an bere hautsak herrira ekarri, eta lezean barreiatu zituzten. Zauden tokian zaudela ere, ongi izan *Martin Ttiki*.



ARTXIBOA

Aunitz dira urteak daramatzatenak herriko zikiro-jatera etortzen.

GIZARTEA

Lekarozko aterpea kudeatzeko hitzarmena sinatu du Nafarroako Gobernuak Aspacerekin

2007an 17.000 lagunetik goiti pasatu ziren aterpetik

Lekarozko dagoen *Valle de Baztan* Gazteen Aterpea 2008an ere kudeatzeko kontratua sinatu dute berriki Nafarroako Gaztediaren Institutuaren bitartez Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Aspace Fundazioak.

Nafarroako Aspace Fundazioak 2003. urteaz geroztik kudeatzen du Lekarozko Aterpea, lehiaketa publikoa irabazi ondotik. Aterpeak 130 lagunendako lekua dauka, sei laguneko hogeita logela eta bainugela daukaten bertze borts logela bikoitz. Bere jangela eta sukaldea ere baditu, kafetegia, joku-aretoa, ekitaldi-aretoa, batzar-aretoa eta lanerako bertze lau gela. 2003tik, gaua aterpean pasatzen dutenen

kopurua igo egin da urtetik urtera. Hala, 2002an 10.706 lagun izan ziren eta 2007. urtean 17.116.

Aterkea kudeatzen duen lan taldea 20 lagunek osatzen dute, eta horietatik 17 ezintasunen bat dutenak dira. Erreserbak kudeatzeaz, harreraz, garbiketaz, erosketaz, sukaldez, promozioaz eta jendeari arreta eskaintzeaz arduratzen dira.

Nafarroako Gaztediaren Institutuak Nafarroako Gazte Aterpeen Sarea bultzatzen du eta borts zentro ditu. Eskualdean, Lekarozkoarekin batera, Doneztebeko Belbiretxea dauka. Joan den urtean, Nafarroako borts aterpe horietan 79.800 lagunek hartu zuten gauerako ostatu.

VENTA PELO RESTAURANT

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaleja Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SARA

Asteburuan ospatuko dira inauteriak

Gazteak Elbarrun, Ihalar, Lehenbizkai eta Argaina aldean barna ibiliko dira larunbatean

Xan HARRIAGUE

Urtea hasi eta berehala hasi dira inauteriak. Herrian hausterre aitzineko asteburuan egingen dira usaian bezala. Larunbatarekin gazteak etxez etxe ibiliko dira betiko ibilbidea segituz. Zaharretxean hasiko dira, eta handik landa Elbarrun, Ihalar eta Lehenbizkaiko auzoetan. Iluntzean plazara hurbilduko dira Argaina aldeko auzotik pasatuz. Eguna bukatzeko Xixonnetek Herriko Etxeko Edantegian animatuko du.

Igande goizeko ikuskizuna meztatik lekora hasiko da, 11:30 aldera, alegia. Gaztetxeo kideek, Zazpiak Bat dantza taldeak, Ikastolako haurrek eta Sarako Kantariak haien doaiak era-

kutsiko dituzte, hainbat kanta eta dantza eskainiz, tartean inauterietako Sorgin Dantza. Berze behin, Ikastolako gurasoek ez dute huts egingen, eta bazkari goxoa prestatuko dute nahi duten guzientzat. Baina oroitutxartela aitzinetik erosteaz. Arratsaldean, batzuk mahai-inguruan lasai ederrean egonen dira kantatzen eta kalkan. Gaztetxeoak bentaz benta ibiliko dira aurtengo inauteriak behar den bezala agurtzeko.

Denbora pasa ahala eta belaunaldien arabera, inauteriak aldatzen joaten dira. Urtebatean oso politak izaten dira, eta ondokoan, ez hainbeste. Azken urte hauetan, hala ere, lagun talde baten eragi-



nez, aberatsak direla erran daiteke, dantzari frango, musikari onak eta parte-hartze polita, izan kantari edo eskolako haurren aldetik. Horri guztiari esker, hurbiltzea merezi du plazara edo bestela auzoan barna pasatzen direnean.

Argazki erakusketa

Duela urte batzuk Xabi Berruet herriko gaztea argazkilaritzan hasi zen aisialdi gisa. Orain arte bi arlotan aritu da batez ere, ikuspegi eta kontzertuetako argazkiekin. Bigarren horrekin erakusketa prestatu du bertze lau lagu-



ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

Goian, oraindik goiza dela, saratar gazteak Elordiara arribatzen eta behean Ximun eta Joanes Garcia Makil Dantzan Zalaietaren atarian.

nekin, eta ikusgai egonen da Miarritzeko Atabal gelan, otsailaren 1etik apirilaren 5a arte.

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maïxan eta Véronique
CADA

Iñaki Alzuet margoak

Fabrika - Berrueteak
Dokuzazio (eskola, bolaburak...)
Pintura - Lantzeak eta berrizatzeko lanak

Komenda Etxea - Lantzeak Auzoa - 31711 URZAZUBI
Telefonoa: 659 862 417

MARTIKO

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko Poi Zaleak, s/n.
31780 Bera, Nafarroa.
Tel: 948 625016
Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin zu zeu sukaldari.

SENPERE

Inauteriei buruz Beñat Zintzo Garmendiak egin duen erakusketa ikusgai izanen da gure herrian

Adin Ederra elkarteak 30 urte beteko ditu buruzagi berri batekin

Franck DOLOSOR

Inauterien kari, programa aberatsa prestatu dute herriko elkarteek eta Herriko Etxeko animazio arduradunek. Hala nola, Beñat Zintzo Garmendia inauterietan adituak apailatu duen erakusketa herrian ikusgai izanen da. Bertzalde, inauteriei buruzko bi hitzaldi eskainiko ditu, bat ikasleei zuzendua eta bertzea denei irekia. Otsailaren 15ean egingen da, ortziralarekin, 18:30ean Saint-Christophe laborantza ikastegian.

Otsailaren 9an, gazteak etxez etxe ibiliko dira Amotzen, Olhan eta Urgurin, eta otsailaren 16an, lbarrun eta Her-

garai bisitatuko dituzte. Otsailaren 22an, herriko ikasleek San Pantzar iratzarriko dute eta maskarak egingen dituzte.

Biharamunean, inauterien egun nagusia izanen da, gosariarekin eta karrika nagusian egingen den etxez etxe ohiturekin. Arratsaldean, San Pantzar lagunaren epaiketa eta erretzea egingen dira.

Adin Ederra elkarteak

Adin Ederra lehengo gazteen batasunak hiru hamarkada beteko ditu primaderan. Berriki, Pierre Le Nue hautatu dute elkarte honetako presidentea. Jeanne Be-reauk tokia utzi dio orain



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

2007an 25 urte bete dituztenak

Ohiturari jarraikiz, klasetako afariak ospatzen ari dira bat bertzearen ondotik. Berriki, 2007an 25 urte bete dituztenen aldi izan da.

arte presidenteordea izan denari.

Gaur egun, 145 lagun biltzen ditu elkarte honek. Gan den urtean bezala, aurten ere ateraldiak egitea espero dute. Azken bilkuran, elkar-tekideek ezin izan zuten samina gorde berriki Mayie Hirigoyen laguna zendu baita. Denek gogoan dute laguntza handia ematen zuela, krakadak prestatzeko, bertzeak bertze.

Biztanleria goiti
Berriki bururatu zaigun

2007an, 23 eztaia ospatu dira Senperen, 51 haur sortu dira eta 40 herritar zendu. Etxeak eraikitzeko 107 baimen eman dira eta azken zenbaketaren arabera, 5 106 lagun bizi dira Senperen.

Amaia Henebutte-Millardi laguntza

Euskal Kulturaren aldeko Elkargoak 3 000 euroko dirulaguntza eman berri dio Amaia Henebutte-Millardi. Honenkin, lbarrunen bizi den

euskaltzaleak hiru liburu eta diska plazaratuko ditu haurrentzat. Amaiak zombait lan argitaratuak ditu dagoeneko.

Eritasun genetikoaren alde

Elkartasuna handia da herrian. Hori untsa frogatu dute berriz ere Arretxea kolegioko ikasleek. Duela gutxi egin zen *Téléthon* eritasun genetikoaren aldeko maratoian 4 100 euro bildu dituzte. Guzia AFM elkarteari eman diote ikerketak laguntzeko.

Gru T n t r T l
I CHE
M l r r k S. L.

2 UK ZE ITZU
EIL T KI N ET ETXE N

T SL KI U E , N STI ET
I UNG S IT LET TI KE ZEIN HE IET

L E K, HIL I K, ESKEL K,
E USKET K ET ZE ITZU S & I K

r	3 7
S N J SE EIL T KI	
n zt	3 7
S N E EIL T KI	
E l z n	5 1 5
FUNE I ZI N T N T I ZI N	
L tz	3 7
LEITZ K EIL T KI	
L s k	3 7
LES K K T N T I	



EZKONTZAK

Carlos Garaikoetxea Elso eta **Ana Isabel Lobeiras Oskaritz**, Iraizozkoa eta Iruñekoa, urtarrilaren 8an, Elizondon.
Meliton Irazoki Etxeberria eta **Rakel Urtegi Gelbenzu**, Sunbillakoak, urtarrilaren 22an, Sunbillan.



SORTZEAK

Loitzate Goñi Elortza, Berakoa, urtarrilaren 4an.
Martxel Salgado Igoaran, Berakoa, urtarrilaren 13an.
Aingeru Etxegarai Taberna, Berakoa, urtarrilaren 14an.
Kattalin Iruueta Bartolome, Igantzikoa, urtarrilaren 15ean.
Paule Agirre Agirre, Leitzakoa, urtarrilaren 1ean.
Eider Beristain Rekarte, Donamariakoa, urtarrilaren 8an.
Lur Oiartzabal Aizpuru, Iruiritakoa, abenduaren 27an.
Eider Eraso Etxenike, Iruiritakoa, abenduaren 30ean.
Narrea Retegi Eskudero, Eratsungoa, urtarrilaren 18an.
Markel Salaberria Zinkunegi, Goizuetakoa, urtarrilaren 14an.
Julen Salaberria Zinkunegi, Goizuetakoa, urtarrilaren 14an.
Xuban Etxarte Indaburu, Iruñekoa, urtarrilaren 18an.

HERIOTZAK

Juan Ignacio Perurena Intxauspe, Goizuetakoa, urtarrilaren 10ean, 56 urte.
Ignacia Amatriain Liberal, Elizondon, abenduaren 16an, 79 urte.
Felisa Martinez Garzia, Elizondon, urtarrilaren 9an, 91 urte.
Bautista Sagastibeltza Erramuspe, Elizondokoa, urtarrilaren 10ean, 61 urte.
Sofia Arratibel Mitxelena, Arraiozkoa, urtarrilaren 14an, 95 urte.
Jose Aldabe Mitxeko, Urrozkoa, urtarrilaren 8an, 88 urte.
Kontxi Juanikotena Bolanio, Berakoa, urtarrilaren 8an, 59 urte.
Jose Sagastibeltza Iturrarte, Leitzakoa, urtarrilaren 9an, 75 urte.
Florencia Mendiburu Almandoz, Doneztebekoa, urtarrilaren 10ean, 83 urte.
Leon Bereau Iparragirre, Lesakakoa, urtarrilaren 12an, 81 urte.
M^o Josefa Zelaieta Goñi, Berakoa, urtarrilaren 16an, 91 urte.
Estefania Telletxea Estrada, Lesakakoa, urtarrilaren 18an, 92 urte.
Jose Ignacio Zabaleta Urkizu, Elizondokoa, urtarrilaren 18, 82 urte.
Pedro M^o Urroz Matxinena, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 19an, 91 urte.
Florencia Etxeberria Elizalde, Eratsungoa, urtarrilaren 21ean, 89 urte.
Santiago Maritxalar Aiertza, Lesakakoa, urtarrilaren 22an, 96 urte.
M^o Teresa Busket Sala, Leitzakoa, urtarrilaren 22an, 71 urte.



Rosa

ALTXU OTXANDORENA

Iturenen hil zen 2007ko abenduaren 25ean

*Laster arte ezpainetan
 utzi gaituztu penetan
 orain gure ametsetan
 bizirik zaude benetan
 gure solasaldietan
 eta gure bihotzetan*

ZURE SEME-ALABAK ETA BILOBAK

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guztiei, mila esker.



XANTI ITURBIDE ALMANDOZ

2004ko otsailaren 23an
 IV. URTEURRENA



MIKEL ITURBIDE MATXIKOTE

2007ko ilbeltzaren 24an
 I. URTEURRENA

*Min ta saminak denborarekin
 omen zaizkigu arintzen
 hori da behintzat behin eta berriz
 ari garena entzuten
 horregatikan bada gauza bat
 ongi ez duguna ulertzen
 zergatik dira zuen hutsuneak
 gero ta gehiago haunditzen*

XANTI ETA MIKELEN FAMILIA.



ARGAZKIA: G.PIKABEA

Iñaki LIZASO Doneztebeko erremontista profesionala

«34 urterekin, 25 nituenean baino askoz sasoi hobean nago fisikoki»

Gurutze PIKABEA

«Urte akabera eta hasiera ezin hobea izan ditut». Eta ez da guttiagorako, profesionaletan 15 urte egin ondotik, erremonteko binakako txapelik haundiena eskuratu baitu lehen aldiz Iñaki Lizaso Doneztebeko erremontistak: Faustino Torneoko txapela. Horrela, orain arteko palmaresa osatzea lortu du: «binakako txapelik irabazi gabe nengoelako arantza bat sartua nuen eta orain hagitz gustura gelditu naiz». Prentsak ere torneoko jokalaririk onena izendatu du: «hori entzutea pozgarria da, baina garrantzitsuena txapela da. 2007a urte txarra izan nuen, banakakoa ezin izan nuen jokatu, eta hau irabazita atzelarietan hoberena izatea eta jendearen errespetua lortu ditut». Izan ere, txapelari bere balioa kendu gabe, Lizasok argi du egunerokoa dela gakoa: «urte guztian ari gara lanean eta jendeak gure alde apostu egiten du, eta erregulartasuna mantentzea garrantzitsua da, publikoarekiko errespetuz».

«Urte guztian ari gara lanean eta jendeak gure alde apostu egiten du, eta erregulartasuna mantentzea garrantzitsua da, publikoarekiko errespetuz».

Hernaniko Galarreta pilotalekuan urtarrilaren 12an jokatu zen final haundia. Urriza izan zuen lagun, eta Altuna I.a eta Etxeberria III.a aurkari, azken hau ere Doneztebekoa. «Nire tikitako lagunaren kontra erremonteko maila goreneko final batean aritzeak ilusio haundia egiten zidan eta harro nago». Urriza eta Lizaso ziren faboritoak eta ez zuten hutsik egin, hamaikagarren tantotik aitzinera nagusitasunez aritu ziren. «Argi genuen erritmo haundiagoa eman behar geniola partidari, aurkariak teknikoagoak direlako eta gu fisikoki hobekak». Eta halaxe egin zuten, 40 eta 26 irabazi. «Hasierako hamar tantoen ondotik nahiko eroso jokatu nuen,

• Iñaki Martinez Lizaso Doneztebeko erremontista profesionalak lehen aldiz jantzi du binakako Faustino Torneoko txapela, Urriza lagun duela. Horrekin orain arteko palmaresa bikaina osatzea lortu du.

• 2007an lesioak tarteko ez zuten jokatzeko aukera haundirik eduki, baina frontoi motzean, banaka Martiko Torneoa irabaziz ederki borobildu zuen urtea.

• Urte berriari begira dituen ilusioez ere galdetu diogu, eta banakakoa irabaztea gustatuko litzaokela aitortu digu.

eta final batean markagailua alde izanik nerbioak ere aldendu zitzaizkidan». Finala, gainera, profesionaletan duela 11 hilabete debutatu zuen Urrizarekin irabazi du. Halere, meritoa baina dela nabarmendu nahi izan digu: «Debutatu berri duen batekin irabazteak merezimendu bikoitza izan dezake, baina meritoa baina da».

Binakakoarekin batera, frontoi motzean eta banaka, Martiko Torneoa izan da berriki irabazitako bertzea. Migel Mari Urrutiari irabazi zion.

Txapela nori eskaini dion galde-tuta, berehala eman digu erantzuna: «nire emazteari eta nire alabari. Egunero eta momenturo nirekin daude, dirak dira eta honen guztiaren oinarri». Eta urte berriari begira zein ilusio? «Ba lesiorik ez izatea eta banakakoa irabaztea». Sasoiari dago Lizaso, bere momenturik onenean, eta erran digunez, «34 urterekin, 25 nituenean baino askoz sasoi hobean fisikoki». Nork daki, eginahal horretan segitzeko asmoa badu behintzat.

MENDIA

Zubi, Loro eta Saralegi omendu dituzte Santa Barbarako kaxkoan

Oroitarran plaka paratu zuten

ttipi-ttapa

Duela urtebete Tailon mendian hildako Xabier Zubieta, Luis Mari Pikabea Loro eta Xabier Saralegiren omenez, Santa Barbarako kaxkoan oroitarria ezarri eta omenaldi ekitaldi hunkigarria egin zen urtarriaren 12an. Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, hainbat senide, lagun eta mendizale bildu zen, Agerra mendi taldearen deialdiarekin bat eginez. 9:30 aldera abiatu ziren Agerratik Santa Barbara oinez animatu zirenak. Behin Santa Barbaran, omenaldi ekitaldia hasi zen, euripean.

Lehenik, oroitarriaren gainetik ikurrina ken-

du zuten Sabino Kortak eta oroitarriaren plaka ezarri zuten. Ondotik, etxe-koek bortz lore sorta ezarri zituzten eta oroitarriaren bedeinkazioa egin zuten On Frantziskok. Segidan, txistulari taldearen doinuekin aureskua dantzatu zuten Iñaki Eskuderok. Gero, Berako Abesbatzaren eta Julen Zelaieta bertsolariaren txanda ailegatu zen, eta azkenik, *Agur Jaunak* abestu zuten Abesbatzak eta partehartzaileek.

San Barbarara Igoera

Santa Barbarara lehenbiziko igoera egin zen arratsaldean. Kirol-



ARGAZKIA: ROSA ERRANDONEA

Zubi, Loro eta Xabiren omenez, aureskua, bertsoak, Agur Jaunak kanta eta lore sortak eskaini zizkieten Santa Barbarako kaxkora hurbildu zirenek.

degitik abiatuta Santa Barbara igo ziren mendizaleak bikoteka. Guzira 53 bikote aritu ziren lasterka, baina konpetizioa baino gehiago, hildako hiru mendizaleen omenezko ekitaldi bezala ulertu zuten bai antolatzaileek, baita partehartzaileek ere. gisa honetako probetan partehartzeko ohitura handiegirik ez duten kirola-

riak ere animatu ziren proba honetan parte hartzera. Inongo palmarasean agertuko ez bada ere, hiru kilometro t'erdiko igoera eta bi kilometro t'erdiko jautsiera azkarren egin zuten bikotea, Manttaleko Fernando Etxegaraik eta Euskal Herriko selekzioko Joxe Felipe Larrazabalek osatutako bikotea izan zen, 23 mi-

nutu eta 40 segundoko denborarekin.

Aipatzekoa da, gizonen bikoteak ez ezik, neska-mutilen taldeak eta neskek bakarrik osatutakoak ere atera zirela beti ere *Zubi, Loro* eta Xabi gogoan. Antolatzaileek, konpetizio kutsurik batere ez duen proba honi segida emateko borondatea erakutsi dute.

PILOTA

Abian da Paxaka Txapelketaren IX. edizioa

9 hirukotek eman dute izena

ttipi-ttapa

Joan den larunbatean hasi zen Laxoa Elkarteak bederatzigarren urtez antolatu duen Paxaka txapelketa. Aurten bederatzigarren hirukotek eman dute izena, horietatik sei Iruritaok. Doneztebe eta Oitzek talde bana plazaratuko dute eta Lapurdiko ordezkariak Ipar Izar taldeak beteko du.

Taldeak bi multzotan banatu dira eta hasie-

rako ligaxkaren ondotik, multzo bakoitzeko bi onenek finalerdiak jokatuko dituzte otsailaren 23an eta finala eta hirugarren posturako lehia martxoaren 1ean jokatuko dira Iruritan.

A multzoan Doneztebe (Jesus Mari Mitxeloren, Josu Juaneña eta Eduardo Oiarzabal), Irurita A (Iñaki Etxandi, Mikel Ballarena eta Andres Elizaintzin), Irurita B (Oskar



ARTXIBOA

Aurtengo txapelketan bederatzigarren bikotek parte hartuko dute.

Urrutia, Igor Urrutia eta Mitxel Etxenike), Irurita D (Joseba Urtasun, Martin Alfaro eta Cesar Sarraitea) eta Irurita F (Carlos Goikoetxea, Xabier Bazterrika eta Xabi Bar-

berena) ariko dira.

B multzoan, Irurita C (Miguel Bidegain, Iñaki Zabaleta eta Jesus Etxenike), Irurita E (Xabier Ripa, Guillermo Etxenike eta Cesar Iña-

rrea), Ipar Izar (Cristian Mendiburu, Harri Idoate eta Iñaki Mendiola) eta Oitz (Ugutx Zelaieta, Iker Bereau eta Jose Agustin Mindegia) ariko dira.

AGENDA

egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

INAUTERIAK

BERA

Urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra, inauteriak.

DONEZTEBE

Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra inauteriak.

ELIZONDO

Otsailaren 4an eta 5ean, inauteriak.

ETXALAR

Urtarrilaren 31n eta otsailaren 4an eta 5ean, inauteriak. Xehetasunak 11. orrialdean.

GOIZUETA

Otsailaren 3tik 5era, inauteriak. Xehetasunak 20. orrialdean.

AURTITZ-ITUREN-ZUBIETA

Urtarrilaren 28an eta 29an eta otsailaren 3an eta 4an inauteriak.

LESAKA

Urtarrilaren 31n eta otsailaren 3an eta 4an inauteriak.

BAZTAN

Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra inauteriak. Xehetasunak 22. orrialdean.

SARA

Otsailaren 2an eta 3an inauteriak. Xehetasunak 27. orrialdean.

SENPERE

Otsailaren 9tik aitzinera inauteriak. Xehetasunak 26. orrialdean.

IPUIN KONTALARIAK

BERA

Otsailaren 27an, Maite Franko ipuin kontalariak *Lau ipuin pinpirin* izeneko ipuina kontatuko du 4-8 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan Liburutegian.

TELEBISTAKO TXOKOA



Ortzegun honetatik aitzinera inauteri ofizialen txanda

INAUTERIETAN MURGILDUAK

Eratsun, Arantza, Igantzi, Sunbilla, Leitza, Arizkun, Erratzu... Aurtentzen inoiz baino goizago ari gara inauterietaz solasean, dagoeneko hainbat baitira aurtengo inauteriak agurtu dituztenak. Aurtitz, Ituren eta Zubietako joaldunen lehen joan-etorriak ere astelehen honetan hasi zituzten. Baina orain gainean ditugunak inauteri ofizialak dira, eta horiei ortzegun honetan, urtarrilak 31, emanen zaie hasiera, Ortzegun Gizeneko eskeekin. Zenbaitetan «arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze», bertzeetan «urtzaingizen urtzaingizen, zingar-arraultze, bat ezpada bertze, biyek hobe!» erra-

nez, batera ez bada bertze, herri aunitzetan ibiliko dira horrela. Asteburuan, berriz, pertsonaia ezagunen txanda izanen da: Lesakan zaku-zaharrak; inude eta artzainak Beran... **TTIPI-TTAPA TELEBISTA** eurekin ibiliko da, han eta hemen, irudirik interesgarrienak bilitzen. Bera, Doneztebe, Etxalar edo Lesakako karrozak ere nola-koak diren erakutsiko dizkigute.

INAUTERIETAKO DVDK SALGAI

Urtero bezala, dagoeneko pasatu diren inauterien DVDk salgai paratu diutze. Interesatuak 948 635458 telefonora deitu beharko dute.

DISKAK



Antton VALVERDE

12 amodio kanta

ELKAR, 2007

Vouvray izeneko herria jaio zen 1863an Charles Bordes konposatzaile ezaguna. Gazte-gaztetatik musikari eskaini zizkion gogo, bihotza zein denbora, eta 1896an Pariseko Schola Cantorum musika elkarte ospetsuaren fundatzaileetako eta lehen zuzendaria izan zen. Euskal Herriarekiko harremana 1885eko udaberrian Parisen izandako konferentzian entzun zuen euskal kantu batetik etorri zen. Eta gerora euskal tradizioarekin lotutako lanak egin behar izan zituen. *Hamabi amodio kanta* lan honetan, Bordes frantses konpositoreak IX. mendean amaieran bildu eta landu zituen Iparaldeko hamabi amodiozko kanta herrikoi bildu dira. Lan monografiko hau bere horretan jaso nahi izan da diska honetan, Antton Valverderen ahotik.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 25,00 € (-1,00)

Zerri gizena
0,965 € kilo. (=)

Zerramak:
0,290€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,13 (+0,03)
1.koa 3,82 (+0,03)
2.koa 3,26 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,25 (+0,03)
1.koa 3,94 (+0,03)
2.koa 3,36 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 140,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,08/3,18
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,30/5,80
8-10 kilokoak: 3,80/43,90

JAKIN BEHARREKOAK

Medikuntzako hainbat mito gezurtatu ditu ikerketa batek

Sakelekoek minbizia eragiten duten agiri zehatzik ez omen dago

Urteen joanean hainbat dira zabalzen eta sinesten diren mitotoak. Horietako batzuetan oinarrituz, hain zuzen, ikerketa batzuk egin dira eta aunitz oinarri sendorik gabekoak direla frogatu da. *British Medical Journal* aldizkarian ageri dira horietako batzuk. *Indiana University School of Medicine* egin duen ikerketa batean oinarritutako datuak dira.

Sakelekoen gehiegizko erabilerak osasunean eragiten duela baieztatu dute, baina sakelekoeken erradiofrekuentzak minbizia eta bertzelako gaixotasunak sortzeko aukera areagotzen duen agiri sinesgarrikerik ere ez omen dago. Dena den, neurri tikiago batean, baina burmuinaren jardunean eta erreakzio-ondorran omen du eragina. Eta Berriki



Egoera arruntean, zortzi ur-baso edan behar dela dioen mitoa ez da egia.

Jose Luis Bardasao Madrilgo Alcalako Unibertsitateko medikuntza irakasleak usate duenez, «*telefonía antenek minbizia eragin dezaket*». Uhin elektromagnetikoek gizakiengan eragin kaltegarria daukala frogatua omen du, nazioarteko hainbat aldizkarietan argitaratutako lanen bitartez.

Egunean zortzi ur-baso edan behar direla erraten duen mi-

toa zabaldua egon da urte aunitzetan. Antza, 1945ean jende helduak kontsumitzen duen kaloria bakoitzeko milito bat ur behar zela erraten hasi ziren, 2,5 litro ur egunean. Frederick Stare nutrizionistak ere sei-zortzi ur-baso edatea aholkatzen omen zuen. Baina egoera normaletan, dieta orekatu batekin eta ohiko likido kopuruak edatea nahikoa omen

da egunean. Halere, ariketa fisikoa eginez gero, eta temperatura handia denean lidiko gehiago edan da. Urgehiagi edateak ez du onurarik ekarriko, eta gainera, bihotzeko eta giltzurruneko arazoak dituztenentzat ur gehiegi barneratzea kaltegarria izan litekeela diote adituok.

Burmuinaren zati bat erabiltzen ez dela ere pentsatu izan dugu, %10a baino ez dugula erabiltzen. Baina ikerketaren arabera hori ez da horrela. Burmuinaren metabolismoa aztertzekegin diren ikerketek %10a baino gehiago erabiltzen dugula frogatu omen dute. Gainera, burmuinean ezintasunak dituztenek hainbat gaitasun garatzeko gabeziak omen dituzte. Burmuinaren zatiren bat erabiltzen ez duten seinale.

LIBURUAK



Zubigilea

Lutxo EGIA

SUSA, 2007

Bi istorioren kontaketa birtartez Mendebaldeko egungo gizartean nagusitzen eta ia ezinbestekotzat jotzen ari diren hainbat eredu kritikatzin eta zalantzan jartzen dituen «*eleberrí politikoa*» da *Zubigilea* nobela. Bere aitzineko bi nobelak bezala (*Paperezko hegazkinak* eta *Ezker hanka falta zuen*) bi istorio txandakatzuz eta amaieran batuz ehundu du Lutxo Egiak. Istorioetako bat XXI. mendearen hasieran kokatzen da. Kontala-

ria Bilboko bulego bateko arkitektoa da, eta, lehen pertsona erabiliz, Menorcara (Herrialde Katalanak) doala kontatzen du Enzo Padovano Pritzker saridun arkitektoari laguntzera. Bertze istorioa Bartzelonan gertatzen da, 1964an, Europako Futbol Txapelketa jokatzin ari den garaian, eta istorio horretan Andres Peruarena gazterik agertzen da —bi istorioren artean ere zubigile—, bilagunekin batera, sabotaje bat egitera joanda .

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

HITZALDIAK

LESAKA

Otsailaren 29an, *Emakumea eta Kontsumoa* izeneko hitzaldia eskaniko du Nekane Juradok Arrano Elkarteak, 20:30ean.

IKASTAROAK

BERA

Otsailaren 23an, Artisautza eta eskulan lantegia, 4 eta 12 urte bitartekoentzat. Izen ematea Ricardo Barojan, otsailaren 15a baino lehen.

LEHIAKETA

BERA

Otsailaren 8a bitarte, inauterietako argazki digitalen lehiaketa. Xehetasun gehiago www.berakoudala.net-en.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Otsailaren 9an, Naparmex besta, Los Chihuahua eta Impekables. 00:00etan Lur dantzalekuan.

Otsailaren 23an, Gu ta Gutarrak-en kontzertua Lur dantzalekuan, 20:00etan.

OSPAKIZUNAK

GOIZUETA

Otsailaren 9an, inauterien ondorengo Kontuen Eguna.

ZINEMA

LEITZA

Otsailaren 8an eta 10ean, David Cronenberg *Promesas del este* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

Otsailaren 15ean eta 17an, *La boda de tuya* filma, Wang Quan'an zuzendariarena. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartitua
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuko pisuak eta pisu berriak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuko pisuak eta pisu berriak salgai.
BERA-LESACA.
- 2. eskuko pisuak salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuko pisuak salgai.
DONEZTEBE.
- Partzela urbanizatuak salgai.
DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.
- Pisuak, apartamentuak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatuak eta zaharberri beharreakoak.

PROMOZIO BERRIAK. GARTZAIN.
- Familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m²ko lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- 2 eratako familia bakarreko etxebizitza lur eremuarekin.
IRAIZOTZ.
- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trastelekua eta aparkalekua.
AGOITZ.
- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- Nabe eta lur eremu industrialak salgai.
ORONÓZ-MUGAIRI.
- Bi familiako etxebizitza lur eremuarekin.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurarekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatu ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. 45 milioi. ☎678526091.



IRUN. 87m²ko pisua salgai, 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta garajea. Mobleztatua. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. ☎629032752.
ZUGARRAMURDI. Bifamiliantzako etxebizitza salgai,

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

andueza INMOBILIARIA

NARBARTE.
- 85m²ko pisuak, 20m²ko garajea, 100m²ko lorategiarekin. 30.500.000 Ptas.

- Lur eremu arakagutia 3.000m². Toki on eta hobea 25.000.000 Ptas.

GAZTELU.
- Bi familiako etxebizitza salgai. 300m²ko lorategiarekin. 42.000.000 Ptas.

DONEZTEBE.
- Herri erdian, 107m²ko pisu berri salgai. 42.000.000 Ptas.

ORONÓZ.
- Estreñazko dagoen apartamentuak salgai. 150.000€

- 140m²ko pisuak salgai. 120.000€

- Estreñazko dagoen 115m² etxebizitza batenko behar bezalako salgai. Lorategiarekin 200.000€

ELIZONDO.
- 130m²ko 3 tokiet salgai. Solairu bakarrekoak, eskalerrak garajekin. Oso erresaka. 400m²ko lur eremuarekin.

BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87

www.habla24.com/andueza

bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jangela, itxitako



Baztango

promoción inmobiliaria

PROMOZIO BERRIAK:
IRURITA: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gutxi eraberritutako eraikinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu personalizaturako aukera.
BERA: Zaharberitutako eraikin tradizionalean, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak, igogailuarekin. Laster emanen dira.
DONEZTEBE: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gutxi eraberritutako eraikinean. Erreserbatzeko zerrenda irekia.

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

Donezteben
Aparat zonaldean
erakotzen ari den
pisu bat salgai.

617 461 649

garajea. 600m²ko lorategia. 295.000 euro. ☎615 744433.
NARBARTE. Etxea (280m²) eta lur eremu ederra (5.500m²) salgai Narbarte eta Legasa artean 528.890 euro. ☎626 128475.



ELIZONDO ondoan beheko solairuan dagoen 118m²ko pisua salgai. Mobleztatua eta sukalde montatua. Aukera ona. ☎670410556.

LESAKA. 110m²ko etxebizitza salgai, Bittirian. Bista onak eta prezio negoziagarria. ☎670 319380/ 607 769519/ 948 637347.

BERA. Pisuak salgai Kanttonberri. ☎948 630600.

BERA. Legia karrikan 92m²ko pisua salgai. ☎948630821/ 661115332.

BERA. 78m²ko pisua salgai. ☎609 708797.

DONEZTEBE. 97m²ko pi-

sua eta bajera salgai. ☎655573763.

ARIZKUN. Pisuak salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta garajea. ☎667 319890.

ETXEBIZITZAK 109 Errentan eman

ANTSOAIN. Lapurbide kaletan logelabaterrentan emateko. ☎619 927459.

DONEZTEBE. Pisuak errentan emateko. 2 logela, sukalde-egongela, 2 komun, igogailua eta trastelekua. ☎646 782890.

IRUÑA. Pisu mobleztatua errentan emateko. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde ekipatua bizitzaren jartzeko. Garajea eta autobus-garalekua. Buztintxurin. ☎637 136542/ 689 950350.

MERKATU TTIKIA

zure iragarkia 3 tokitan

Aidizkaria
Telebista
Internet

8€

BORDA
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

Abisitu: 37-8 LESAKA
bordejakin@telefonica.net
Tlxno/Faxo: 948 437 546
Rug: 609 477 277

GARAJEAK/LOKALAK**107 Saldu**

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

DONEZTEBE. 80m²ko haurrentzako arropa denda salgai, errentan emateko aukerarekin. ☎669 266192.

GARAJEAK/LOKALAK
108 Erosi

Kotxe zahar bat berehala eta luzaro mugitu gabe uzteko lekua behar da: pabiloia, lonja... ☎636 072732.

LANA
301 Eskariak

Emakume bat sukaldari lan guntzaila lanetan edo berze lanetan ariko litzateke.

Esperientziaduna. ☎620 455281.

Emakume batek adinekoak zainduko lituzke, gau eta egunez. Esperientziaduna. ☎948 631048.

LANA
302 Eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik ortziratera, 7:00etatik 15:30era (ordutegi negoziagarria). ☎652 757774.

BERA. Mekanizatu enpresa batean fresatzaile behar da. ☎948 631167 (goizez).

BERA. Auzoa ostatu-jate-txean zerbitzari euskalduna eta arduratsua behar da. Esperientziaduna. ☎605 864355.

MOTORRA
501 Salerosketak

Golf TDI autoa salgai, 2000. urteko azarokoa, aire-klimatizagailua, CD irakurgailua... Egoera onean. ☎620 249262.

Opel Astra familiarra salgai. NA-AT. ☎689 531012.

Fiat Ulysse monobolumena salgai, 60.000 kilome-

tro, gasolina, 2003koa. Egoera onean. ☎667 237191.

Galopper Super Exceed mendiko autoa salgai, 2003koa, CCF matrikuladuna. Aire egokitua E.E., C.C., direkzio lagundua. 75.000 kilometro. Egoera ezin hobean. ☎617 147080.



Citroen C3 kotxea salgai, 0 kilometrokoa eta extra guztiekin, 10.500 eurotan. ☎628 015933.



Seat Ibiza 1.9 diesela salgai, 5 atekoa. NA-AT. ☎606192829.

Remolkea salgai, frenoak, toldoa eta arkilarekin. ☎948451622/639 439509.

Renault Twingo Easy autoa salgai, 1995ekoa. Prezio merkean. ☎948 630542.

Terrano 2.7 TDI salgai. 2001ekoa, 56.000 kilometroekin eta engantxe-arekin. ☎670 251632.

MOTORRA
502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN ESKAINTZA ZABALA
(6-12 hilabetekoak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Megane II 1.5 DCI 100 CV, Clio Confort 1.5 DCI.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Mitsubishi Intense 3 ate, Vitzra 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitzra 3 ate, Opel Zafira, Terrano II 3 ate, Opel Frontera 3-5 ate, Montero 10 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Almera, Fiat Doblo, Nissan Navarra, Frontera 3-5 ate, Suzuki Jimny, Seat Leon eta Kia.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

ANIMALIAK
602 Salerosketak

Zezena salgai, 5 urte eta limusina arraza, bere karta eta guzti. ☎686 927911.
120 kilo inguruko 2 zeri salgai. ☎948 634062.

BERA. 20 ardi mutur gorri ernari salgai. ☎948 631032.

Border Collye arrazako **txakurkumeak** salgai. ☎616 837452.

10 **ardi**, 6 **artantxo** eta 2 **ahariko** salgai. ☎948 634053.

Border Collye arrazako **txakurkumeak** salgai. ☎616837452.

DENETARIK
702 Salerosketak

Ildi uztarria, zinta eta kapa erosiko nituzke. ☎677822248.

1.200 **teila** gorri (Romane gelis) eta 39 teila gorri (canal) berriak eta erabili ga-beak salgai, 1.200 euro, negoziagarria. 10 **erradiadore** berotzeko, fuellezko **kaldera** eta 500 litrorentzako **depositoa** salgai, 350 euro. ☎(0033) 677402203.

Negutegia salgai, 2 euro/m². 9,5m²ko zabalera. ☎645 013213.

PUBLIZITATE SAILEKO ARDURADUNA BEHAR DA

Komunikazio lokalaren arloan ari den enpresa batean langilea behar da publizitate salmentan aritzeko.

Baloratuko da:

- Publizitate, marketin eta diseinu arloko prestakuntza eta ezagutza
- Harremanetarako eta antolaketaarako doakia
- Esperientzia

Eskaintzen da:

- Lanean berehala hastea, Etxalarren dagoen lanpostuan
- Kontratu finkoa izateko aukera
- Soldata hautatutako pertsonarekin adostuko da

Interesatuak bidali curriculum kulturkari@ttipi.net helbidera otsailaren 6a baino lehen. Informazio gehiago: 948 63 54 58

KULTURKARI

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



IORITZ ARBURUA LEONIS beratarrak urtarriaren 24an 8 urte bete ditu. Zorionak atauxi eta amatxiren partetik.



IORITZ ARBURUA LEONIS beratarrak 8 urte bete ditu urtarriaren 24an. Zorionak eta muxu pilapila bat atxa, ama eta anaia lkerren partetik.



MIKEL ZABALA ORMAZABALEK 2 urte bete ditu ibeltzaren 29an. Zorionak eta urte askotarako esanez Leitzako eta Hondarribiko familien partetik muxu haundi bat



IZARO LARRALDE IBARRA beratarrak 6 urte bete ditu urtarriaren 26an. Zorionak eta 6 muxu potolo atxa, ama eta Ugaitzen partetik.



AITOR MARIN SERRANO elizondarrak otsailaren 7an 7 urte beteko ditu. Zorionak zure guraso eta anai-arreben partetik. Aupa txapeldun!




LUKEN URTXEGI URRAK 2 urte bete ditu urtarriaren 28an. Auniz urtez eta muxu erraldoi bat gure gosaio tikiari. Ninbe, atxa eta ama.



LUKEN URTXEGI URRAK gure arztain tikiak 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



LUKEN URTXEGI URRAK 2 urte bete ditu urtarriaren 28an. Zorionak eta muxu handi bat baserriko familiaren partetik.



INIGO ETXEGARAI ALDABE beratarrak 10 urte bete ditu urtarriaren 20an. Zorionak aitaren ehi-ziko koadriaren eta familiaren partetik. Aupa Bartzelona!



Elizondoko LORENTXO MORALEÑA OTEIZAK 43 urte bete ditu urtarriaren 19an. Zorionak, muxuak eta besarkadak Beñat eta Gaizkane- ren partetik.



Etxalarko UXUE ITURRIA RAZKINAK 6 urte beteko ditu otsailaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat atxa, ama, amatxi, Oier eta Markelen partetik.



UXUE ITURRIAK 6 urte beteko ditu otsailaren 9an. Zeinen guapa zauden Laia Trialeko txapeldunaren ondoan eee! Zorionak eta muxu haundi bat Larregiatik, bereziki Olaia eta Mikelen partetik. Egun zoragarria pasa dezazula. Muaka.



IKER OSUA beratarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 20an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik, eta berexiki Aneren partetik. Aupa txapeldun!



ANE OSUA beratarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 3an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik, eta berexiki lkerren partetik. Muxuak gure printzesari.



Doneztebeko osaba **PATXIKUK** eta **MAIALEN SEINEK** otsailaren 3an eta 4an 31 eta 5 urte beteko dituzte. Auniz urtez eta muxu auniz familia guztiaren eta gehienbat Pello eta Aitorren partetik.



URKOK urtarriaren 22an 9 urte bete ditu eta **OIHANEK** otsailaren 5ean 2 urte. Zorionak denen partetik.



ANGEL MARI eta **ROSA MARIK** ilbeltzaren 29an 25 urte bete dituzte ezkondurik. Auniz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



IMANOL ARANIBAR IPARRAGIRREK 3 urte bete ditu ibeltzaren 29an. Auniz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Auniz urtez **IMANOL** Alaitzen partetik.

INAUTERIE TAKO

DVDak salgai

Arantza • Igantzi
Etxalar • Sunbilla
Ituren • Aurtitz • Zubieta
Bera • Lesaka
Doneztebe

948 635 458

AMAIUR

SUKALDEAK

Rosa Seminario 13
DONEZTEBE
Tel.: 948 450 400



ARMAIRU ENPOTRATU TA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIA



Muebles
Telletxea

DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12
Tfnoa: 948 450 258 • 948 451 811

MERKEALDIA

Lur

otsailak 2 larunbata

LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

otsailak 9 larunbata

napar mex

LOS CHIHUAHUA + IMPEKABLES

00:00 8€ aurretik 10€ takillan

otsailak 16 larunbata

NOREKIN DANTZA

00:30 8€

otsailak 23 larunbata

HAUR KANTARI JAIALDIAK 2008

11:00

GU TA GUTARAK

Unai Iturriaga • Igor Elortza • Josu Zabala • Aitor Rubio • Xanpe

20:00 5€

Antolatzailea:



LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LUREUZONDO.COM

Laguntzaileak:

Heineken



Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK